

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2014-04-28
ASTELEHENA
450. ZENBAKIA
11. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



JOXE AGIRRE

Ganbarak sari guztiak irabazi ditu | 24

Bergarako 30 bat dendak moda desfilea egingo dute maiatzean | 13



laz baino turista gehiago ibili da aurtengo Aste Santuan | 2



Aretxabaletako 5. edukiontzia aldekoek kontsulta egin nahi dute | 15

Beñat Rezusta: "Txapelketako partidu borobilena izan da zapatukoa"

Binakako Promozio Txapelketa irabazi du Jakarekin batera | 17



Beñat Rezusta eta Erik Jaka garaikurrekin. | ARGAZKI PRESS









Lasterbidean lasterketan parte hartzeko dei egin dute

Preso eta iheslarien eta haien gertuko alde egingo da | 4

Diputatu nagusiari gaur emango diote alta

48 ordu eman ditu Donostiako Ospitalean obserbazioan | 4

SINADURAK

-  NEKANE SAN MIGUEL | 6
-  6 | MIREIA BIKUÑA
-  INES ALDAI | 12
-  13 | MIGUEL LAZPIUR
-  MIREN ZUBIA | 14
-  15 | YERA SANCHEZ
-  IMANOL GALLEGO | 29
-  32 | IXIDOR SOLUPE

"Energia fotovoltaikoa alternatiba bat da dagoeneko"

Oier Bolibar
Ingeniaria eta energia berriztagarrietan aditua | 8



Euzko Gudaroztearen Intxortako lurbakietan frankistei tiro egiteko prest.

Memoria historikoa aldarri

Intxortako gerrateen bigarren errekreazioa egin zuten atzo, domekan, Elgetan. Memoria historikoa bizirik mantentzearen garrantzia azpimarratzeko ekitaldi borobila egin zuten. | 22

JOSETXO ARANTZABAL

Iaz baino turista gehiago izan ditugu Aste Santuan gurean

- ▶ Bisita gidatu guztiak egin dituzte Oñatin
- ▶ Ostatu gehienak beteta izan dira jaiegunetan

USOA AGIRRE | ARRASATE

Debagoiena ez da turista mordoia etortzen den eskualdea, baina gure altxorrek ezagutzera datozenak beti daude, eta aurten jende asko ibili da Aste Santuko jaiegunetan; iaz baino gehiago. Hala diote turismo bulegoetan jaso dituzten datuek.

Oñati inguruan, esaterako, 350 lagun ibili dira apirilaren 17a eta 21a bitartean; iaz, oster, 317. Eta egunik jendetsuena apirilaren 18a izan da, 119 lagun etorri baitziren orduan. Horiexek dira Turismo Bulegoko arduradunek emandako datuak. Turismo Bulegoak eskainitako bisita gidatu guztiak (zazpi, guztira) egin dituzte, gainera, eta 173 lagunek parte hartu dute bisita horietan. Bisitari gehienak Euskal Herrikoak izan dira, Bizkai aldetik etorritakoak asko; eta Kataluniatik, Gaztela Mantxatik eta Aragoitik ere hainbat etorri dira.

Arrikruzten ere bisitari asko izan dituzte. Datu zehatzik ezin izan dute eman bertako arduradunek, baina oso gustura daude bisitari kopuruarekin. Hala ere, iazko Aste Santuan baino bisitari gutxiago izan direla esan digute. Programatutako bisita gidatu ia guztiak egin dituzte, batzuk ingelesez ere bai, eta katalanez bat. Bisitari gehienak Euskal Herrikoak izan dira, eta gero, Madrildik eta Kataluniatik etorritakoak.

Leintz Gatzagan ere oso gustura daude aurtengo Aste Santuan izan duten bisitari kopuruarekin. Guztira, 111 lagunek bisitatu dute gatz museoa. Aste Santuko egunetan egunero izan da zabalik museoa eta aurrez programatutako bisita gidatu ia gehienak egin dituzte. Jatorriari dagokionez, Euskal Herrikoak izan dira gehienak, eta izan dira Madrildik etorritako batzuk ere.

Ostatuak beteta jaiegunetan

Bisitan etorri diren askok lo egiteko lekua ere gurean topatu dute. Leintz Gatzaga, Arrasate, Bergara eta Oñatiko hainbat ostatutan galdetu dugu zer moduz joan den Aste Santua, eta gehienetan erantzun digute logelak beteta izan dituztela Aste Santuko bost jaiegunetan. Pzako asteen, aldiz, nabarmena izan da jaitsiera, eta, turistak beharrez, lan-kontuengatik etorritako bisitariak dituzte bezero. Bergarako Lamaino Etxeberrri nekazari etxean, adibidez, jaiegunetan etxea beteta izan dutela esan digu bertako ugazaba Maite Aristegik. Pzako asteen, ordea, betiko bezeroak izan dituzte; enpresetara lanera datozenak.

Pzako asteen bisitari kopuruak behera egin du, baina, oraindik jai dutela aprobetxatuta, hainbat turista topatu ditugu han eta hemen.



Turista taldea Oñatiko unibertsitate zaharra bisitatzeko, aurtengo Aste Santuan. | IMANOL



U.A.

ALEJANDRO ETA LAGUNAK | GANDIA (VALENTZIA)

"Horrelako paisaia izatea nahiko eskaintza bada turismorako!"

Alejandro Gandiatik etorri da lagunekin batera. Bilbon urte askoan bizi izan zen, eta orain Valentzian bizi bada ere, laguneri erakutsi nahi izan die Euskal Herria nolakoa den.

Zergatik etorri zarete hona?

Joan den urtean Santiago Bidea egin genuen oinez eta ibiltze kontu hori gustatu egin zitzaigun. Hura eginda, aurten ikusi dugu badagoela beste bide bat, Ignaziotar Bidea, Loiolatik Manresarainokoa, eta hori egitea pentsatu genuen. Lehenengo etapa egin dugu Euskal Herrian. Autoa Oñatin laga eta handik Azpeitiara joan ginen eta Azpeititik Arantzazura etorri gara oinez. Hemen lo egin eta Arantzazu eta Oñati ikusi ditugu gaur. Orain, ibilbidearen bigarren etapa egingo dugu; autoa beste nonbait laga eta Logroñoraino iristea espero dugu.

Zer iruditu zaizue ingurua?

Ibilaldia oso polita izan da. Ingurua, paisaia, janaria, jendea... dena izan

da zoragarria eta errepikatzeko modukoa.

Eta turismo eskaintza?

Zerbitzu guztiak oso ondo daude eta jendea ere oso atsegina da. Egia esan, horrelako paisaia izatea nahikoa eskaintza ere bada! (barre) Gainera, oso ondo jaten da.

Bertako eguraldiaren gorabeherak ere ezagutu dituzue.

Bai, uste dut hemengo eguraldi klasikoa egin digula. Eguzkia, euria, haizea, behe-lainoa... denetik izan dugu. Mendira abiatu ginen behe-laino pixka bat zegoela eta segituan ohararazi ziguten ez jarraitzeko gora, galtzeko arriskua zegoela-eta. Kasu egin genien badaezpada ere. Eguraldiari buruz ondo informatuta eta mendirako ondo prestatuta etorri gara eta ez gaitu ezustean harrapatu.

Gomendatuko zenieke lagunei ibilbidea?

Bai, jakina! Benetan merezi du ibilbidea egitea; guri asko gustatu zaigu.

DARJA | ERRUSIA

"Jendea oso abegikorra da eta horrek bakarkako bidaia hobetu egiten du"

Darja errusiarra da eta 26 urte ditu. Bakarrik etorri da Euskal Herrira eta Bilbo bisitatu ostean Arrasaten hartu du ostatu. Oñatin elkartu gara harekin.

Zergatik etorri zara hona?

Errusian oso gutxi ezagutzen da Euskal Herria. Bartzelona, Madril edo Espainiako hegoaldera joaten dira errusiarrek, baina Euskal Herrira gutxi. Niri Espainiako iparraldea interesatzen zitzaidan eta horregatik etorri naiz.

Oñatin, adibidez, Arantzazuko santutegia oso interesgarria da. Arte Garaikidea da eta gauza interesgarri asko daude hemen. Arteak erakartzen nau, batez ere, arkitekturak eta pinturak.



USOA AGIRRE

Autorik gabe etorri zara. Zer moduz dago garraio publikoa turismorako?

Arrasaten hartu dut ostatu eta konezio oso ona du Oñatirekin; autobusean edozein momentutan joan naiteke batetik bestera. Maleta handia ekarri dut eta beldurra nuen agian ezinongo nuela autobusez mugitu, baina ez dut inolako arazorik izan; autobus guztiak dute maletategia.

Bertakoekin harremanik izan duzu?

Jendea oso abegikorra da hemen eta guztiak daude laguntzeko. Bakarrik ari naizenez bidaiatzen, laguntza horrek egonaldiko emozioak hobetu egiten ditu. Turismorako oso ondo

prestatuta daude gainera herriak. Bisitatu ditudan herri guztietan topatu dut turismo bulegoa, askotan bat baino gehiago eta beti eman didate behar nuen informazio guztia.



RAKEL MUXIKA
ARANTZAZUKO DENDA

"Jende asko ibili da, iaz baino gehiago iruditu zait, eta dendan asko saldu dugu. Eguraldia ere ederra egin du eta horrek jende asko erakarri du. Euskal Herriko jendea ibili da, batez ere, eta asko mendizaleak izan dira".



PILAR BELASTEGI
IBARRE NEKAZARI ETXEA

"Pozik gaude, Aste Santuan etxea beteta izan dugulako. Alemaniako lagun-talde bat izan dugu astebetetz. Pazko astean betiko martxara bueltatu gara; enpresetara datozen bezeroak izan ditugu".

CESAR ETA FAMILIA | ZARAGOZA

"Beti entzun izan dugu Euskal Herrian ondo jaten dela, eta egia dela frogatu ahal izan dugu"

Cesar eta bere familia Zaragozatik etorri dira Euskal Herria. Zarautzen hartu dute ostatu eta egun pasa etorri dira Arantzazu eta Oñati bisitatzen.

Zergatik etorri zarete Euskal Herrira?

Noiz edo noiz izan gara Euskal Herria egun-pasa, baina ez genuen ondo ezagutzen eta paisaiaz, jendeaz eta janariaz gozatzera etorri gara egun batzuetarako. Egia esan, oso ondo pasatu dugu eta atsedean hartzeko aukera ere izan dugu, horretara ere bagentzen eta.

Zarautzen hartu duzue ostatu. Zergatik aukeratu duzue?

Zarauzko familia batekin etxea trukatu dugu eta haien etxean izan gara. Etxeak trukatzeko turismoa egin dugu, orain hain modan dagoena.

Zarauzarrak uda partean etorriko dira kostaldean dugun etxe batera egun batzuk pasatzera.

Kostaldea ez ezik, barrualdea ere ezagutu nahi izan duzue Arantzazura etorrita.

Bai, Arantzazuko santutegia bisitatzen etorri gara espresuki. Izan ere, emazteak Arantzazu du izena eta ez zuen leku hau ezagutzen. Egia esan, zirraragarria da santutegia eta ingurua. Oso handia da eta moderno; ez gaude ohituta santutegiak hain modernoak ikusten. Merezi izan du etortzea. Eguraldiak ere lagundu digu egun hauetan. Goizen bat edo beste izan dugu triste xamarra, baina bestela eguraldia portatu da.

Eskaintzen diren turismo zerbitzuak zer iruditu zaizkizue?



Zerbitzu asko dago bisitariondako eta guztiak iruditu zaizkigu oso onak. Gastronomía aldetik eskaintza itzela da. Otordu asko egin ditugu etxetik kanpo eta edozein taberna txikitik edo jatetxe handitan oso ondo eman digute jaten. Horrek, behintzat, ez du kale egin. Beti entzun izan dugu Euskal Herrian ondo jaten dela, eta

egia dela frogatu ahal izan dugu.

Arantzazutik bueltan, ze plan duzue orain?

Gasteizeraino joateko asmoa dugu orain, han arratsaldea pasa eta etxe aldera gerturatuko gara. Bihar alabak eskolan hasten dira eta gu lanean; beraz, gure oporraldia amaitu beharrean gaude.

si, ya estoy en casa con Jokin...

si, ya estoy en casa con Jokin...

...que si puedes traer algo para cenar, ¿vale?

...afaria erostea zure kontu, ados?

Zer ikusi hura egin

EREDU IZAN

DEBAGOIENEKO
UDALAK

Garitano diputatu nagusiari gaur emango diote alta

Zapatuan ikurrinaren omenezko ekitaldiaren atarian zorabiatu ostean 48 ordu eman ditu obserbazioan

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Gipuzkoako diputatu nagusi Martin Garitanoren osasun egoera bere onera etorri da eta ezustekorik ezean, goizean alta emango diote Donostia Ospitaleko medikuek, aldunditik esan dutenez. Haren ama Rosamari Larrañagak ere hala esan du: "Susto handia hartu genuen zapatuan, baina orain ondo dago, hobeto dago. Uste dugu estresaren ondorio izan dela. Seguruenik astelehen goizean bidaliko dute etxera".

Horiek Martin Garitanoren amaren hitzak diputatu nagusiak zapatuan, Donostiako Gipuzkoa plazan egindako ikurrinaren aldeko ekitaldian izandako osasun arazoaren gainean. Instituzioetan Espainiako bandera jartzeko "inposizioa" salatzeke ikurrinaren aldeko ekitaldia antolatu zuen Aldundiak eta plazan sartu berria zela, zorabiatu egin zen Garitano. Plazan bertan artatu ondoren ospitalera eroan zuten eta han eman ditu bi gau.

Ikurrina plazan dago

Garitanoren osasun arazoarengatik ekitaldia aldatu behar izan



Kortabarria ikurrina jasotzen. | GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

zuten arren, ikurrina jarri, jarri zuten, iragarri moduan, Espainiako Justiziaren "inposizioari" erantzuteko. Hamalau metroko mastan ikurrin handi bat dago, beraz, zapatutik Gipuzkoa plaza lorategietan, lau metro zabal eta sei metro luze dituen.

Jende ugari batu zen ekitaldian eta aurreikusitako bezala, Realeko kapitain izandako Inaxio Kortabarriak jaso zuen, han batutakoek

Mikel Laboaren *Txoria Txori* abesten zuten bitartean. *Ikurrina bai, espainola ez* eta independentziaren aldeko oihuak ere entzun ziren. Ondoren, aurrekua dantzatu zioten ikurrinari eta Andoni Egañak eta Alaia Martinek bertsoan ere egin zioten. Amaitzeko, Larraitz Ugartek han batutakoek eskerrak emateaz gain, azpimarratu zuen eurentzat "gogorra" izan dela "espainola jarri behar izatea".

Lasterbidean elkartasun lasterketan parte hartzeko dei egin dute

M.B. | ARRASATE

Lasterbidean, nazio elkartasun lasterketaren bigarren edizioan parte hartzeko dei egin zuten zapatuan Arrasaten, bailarako zenbait korrikalarik, beste batzuen artean. Azaldu zuten, iaz jaio zen ekimena, "korrikaren esparrutik, euskal errepresaliatuen eta euren gertukoaren eskubideen aldeko elkartasun keinu gisa; izan ere, ehunka dira etxetik urrun bizi diren euskal herritarrak; espetxean, ihesean edo deserrian,

oinarrizko eskubideak urratuta". Bada, "egoera hori irauli eta elkartasun urratsak emateko" 1.200 lagun batu ziren iaz Oiarzunen egin zen Lasterbidean lasterketan; baina korrika egin ez arren, beste hainbat ere gerturatu ziren elkartasuna adieraztera, zapatuan Arrasaten azaldu zuten.

Aurten, Larrabetzun

Iazko bide beretik, Larrabetzun egingo da aurtengo edizioa, maiatzaren 18an, eta iaz moduan bi

lasterketa egingo dira: 7,6 kilometrokoa bata; 3,2koa, bestea.

Izen ematea dagoeneko zabalik dago, www.lasterbidean.com helbidean, lasterketa luzerako. Laburrerako, berriz, egunean bertan eman beharko da izena.

Lasterketaz gain, ekintza gehiago ere egongo dira, 11:00etan hasi eta 19:00ak bitartean. 600 laguneko herri bazkaria, kontzertuak, txosnak, haurrentzako gunea...

Arrasaten azpimarratu zuten moduan, desagertzeko bokazioarekin jaio da Lasterbidean: "Jaio-razi zuten arrazoiak desagertzearekin batera bukatuko da, baina oraingoz herrialdez herrialde lasterka jarraitu beharko dugu".



Besteak beste, bailarako zenbait korrikalarik hartu zuten parte agerraldian, Aritz Kortabarria arrasatearrak, kasu. | M.B.



Aita Menni ospitaleko ekitaldiaren une bat. | JOKIN BEREZIARTUA

San Benito Menni izan dute gogoan Aita Mennin

M.B. | ARRASATE

San Benito Menni, estatuko lehen laguntza sare psikiatrikoaren sortzailea izan zuten gogoan Arrasateko Aita Menni ospitalean egunean, hilaren 24an, haren heriotzaren 100. urtemuga ospatzen zen egunean. Ekitaldian izan ziren, besteak beste, Arrasateko alkate Inazio Azkarragarizar, Donostiako Gotzaindegiko bikario Juan Kruz Mendizabal, Arrasateko parroko Horazio Argarate eta Caritaseko ordezkari Xabier Jorin. Horiekin batera, Aita Menniko zein San Juan de Dios ospitaletako zuzendaritzako ordezkariak ere izan ziren ekitaldian.

Meza eta lore eskaintza

Juan Kruz Mendizabalek emandako mezarekin izan zuten gogoan. Lore eskaintza eta aurrekua ere egin zizkioten, eta modu horretan eman zioten hasiera haren heriotzaren 100. urtemugako ekitaldi

sortari. Urte osoan egongo dira ekitaldiak Ahizpa Ospitalarietara eta San Juan de Diosko Anaiek antolatuta; izan ere, lehenaren sortzailea izan zen eta bigarrena berrezarri egin zuen. Aita Menni ospitaleko Ama Nagusi Montserrat Esparzak azaldu zuenez ospakizun guztien helburu nagusia haren obra ezagutzera ematea da: "Egungo psikiatriaren bultzatzaile nagusia izan zen, aurkitzailea. Psikiatria, logikoa denez, garatzen joan da orduetik, baina hura izan zen Espainian lehen bultzada garrantzitsua eman ziona, gizonezkoendako zein emakumezkoendako".

Inazio Azkarragarizar alkateak, bestalde, Aita Menni ospitalearen garrantzia azpimarratu zuen: "Izugarrizko garrantzia dauka guretzat. Hemen egin den eta egiten ari diren lana esker-tzekoa da; inportantea da gure herrirako, eskualderako eta Euskal Herri osorako".

Beste urrats bat Fagorren Etxetresnen bide orrian

Gaur, hilak 28, amaitzen da Fagor Etxetresnen likidazio planari alegazioak egiteko epea

M.B. | BERGARA

Gaur, astelehena, amaituko da Fagor Etxetresnen likidazio planari alegazioak egiteko epea, Fagorreko iturriek baieztatu dutenez. Apiril hasieran erregistratu zituzten administratzaile konkurtsalek Donostiako 1. Merkataritza Epaitegian Fagor Etxetresnak taldearen eta Basauriko Edesa filialaren likidazio planak eta 15 eguneko epea ere egon da alegazioak aurkezteko, kooperatibaren konkurtso prozesua zuzentzen ari den Pedro Jose Malagon epaileak erabakirik hartu aurretik.

Behin plana onartuta, ikusgai jarriko da, gura dutenek interesekoak iruditzen zaizkien unitate eta ondasunekiko eskaintzak egin ahal izan dituzten. Baina dagoeneko bi taldek

erakutsi dute interesa. Alde batetik, Cevital aljeriarrak 25 milioiko eskaintza egin du Fagor Ireland Brandt, Dietrich, Vedette, Sauter eta Easycook markak eskuratu ahal izateko eta Pedro Jose Malagon epailearen oniritzia du.

Bestetik, CNA talde kataluniarrak eskaintza loteslea aurkeztu zuen apiril erdialdean epaitegian, Eskoriatzako eta Garagartzako lantegiak erosteko.

Bere produktuak Cata, Nodor eta Apelson marken bitartez komertzializatzen dituen Kataluniako taldea 16 milioi euro ordaintzeko gertu azaldu zen, eta bere asmoa litzateke Debagoieneko bi lantegi horietako aktibitateari eta 500 lanposturi eustea.

Dick Emanuelsson | Kazetari suediarra

"Heriotza-mehatxuak izan ditut egin ditudan erreportajeengatik"

Askapenaren eskutik, Hegoamerikan urte luzez lan egindako kazetaria Arrasaten izan zen

J.B. | ARRASATE

Askapenak gonbidatuta, 1951n jaiotako Dick Emanuelsson kazetari suediarra Arrasateko Irati tabernan izan zen hilaren 22an. Haren emazte Mirian Emanuelssonekin batera Hegoamerikan zehar eta bereziki Kolonbian egindako lana oinarri hartuta, hitzaldi interesgarria egin zuen.

Kolonbia bigarren aberri moduan duzula diozu. Zergatik?

Hegoamerikara lehen aldiz 1977an heldu nintzen; Kuba izan zen ezagutu nuen lehen

herrialdea. 1980an Hegoamerika osoan zehar ibili nintzen eta geldialdi luze bat egin nuen Kolonbian. Herri handi hartaz maitemindu egin nintzen. Hainbat diktadurak zigortutako herria da, oraindik ere horrela jarraitzen duena. Oso herri zintzoa eta borrokalaria da, eta hainbat lezio eman izan ditu. Horregatik, Kolonia bigarren aberri bat da niretzako. 1999an berriemaile moduan hasi nintzen lanean, egun osoz; amets bat egia bihurtu nuen orduan.

Estatuaren errepresioa gertutik bizi izan duzu, ezta?

Nik kontatu dudana errealtatea ez da sekula prentsa korporatiboan agertzen. Zentzu horretan, nire erreportajeak oso gaizki ikusiak izan dira botere faktikoen ikuspegitik, eta, horregatik, besteak beste, heriotza-mehatxuak izan nituen 2005. urte osoan zehar.

Euskal Herrira egindako bisita aprobetxatzen ari zara beste erreportaje bat egiteko. Zeintzuk dira zure asmoak?

Espainia bizi izaten ari den krisi ekonomiko sakona lantzea da gure asmoa. Horrez gain, Euskal Herriko eta Katalunia-ko mugimendu independentista ere landu gura dugu; gatazka politiko eta sozialak ezagutzera ematea da helburua.



Dick Emanuelsson. | JOKIN BEREZIARTUA

Independentzia lantzeko saioak hilaren 2an eta 3an

Debagoieneko Ernai eta Sabadelleko Arran gazte antolakundeek elkarlanean antolatu dituzte

J.B. | ARRASATE

Debagoieneko Ernaik eta Sabadelleko (Herrialde Katalanak) Arran gazte antolakundeak elkarlanean antolatuta, independentziaren gaineko topaketak egingo dituzte maiatzaren 2an eta 3an. Ernaiko Laket Zumalde oñatiarrak azaldu digu ekimenaren helburua: "Herrialde Katalanetan martxan dagoen prozesu independentista gertuagotik ezagutu eta elkarren artean loturak egiteko baliatu nahi ditugu topaketak. Funtsean, zer esanik ez, Euskal Herrian independentziak burujabetzarako tresna gisa daukan garrantzia azpimarratu nahiko genuke: eredu ekonomiko kapitalista irauli eta eredu feminista oinarritutako herri proiektua garatzeko. Uste dugu Herrialde

Katalanetako prozesuak euskaldunon burujabetza nahia elikatzen duela".

Egitarau interesgarria

Maiatzaren 2an *Euskal Herria eta Herrialde Katalanak*, gazte borrokaz burujabetza izeneko mahai-ingurua egingo dute Oñatiko Antixena gaztetxean (17:00). Gero kalera irtengo dira eta eguna amaitzeko afaria eta gaubela izango dituzte. Gaztetxean bertan egingo dute lo.

Hilaren 3an, zapatua, 09:00etan hasita gure bailara ezagutzeko bisita gidatu alternatiboa egingo dute. Arratsaldean Bilboko manifestaziora joango dira *Larrutu sistema, eraldaketa gure baitan* lelopean. Amaitzeko parranda egingo dute Arrasateko gaztetxean.



Joan den astean LAB sindikatuak Kulturaten egindako prentsa agerraldia. | JOKIN BEREZIARTUA

Langileen erabakitze eskubidea aldarrikatzen

Maiatzaren Lehenari begira Eibarko manifestaziorako dei egin du LABek; ondoren, herri bazkaria egongo da

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Euskal Herriko langileek Euskal Herrian lan eta bizi behar badute bertan erabakitze eskubidea izan behar dutela uste du LAB sindikatuak. Maiatzaren Lehenari begira antolatutako ekitaldien berri emateko Kulturaten egindako prentsa agerraldian ideia hori nabarmendu zuten. Izan ere, *Langileok erabaki Euskal Herriak erabaki dezan* aukeratu dute lelo aurtengo manifestaziorako.

"Krisia iruzur handi bat da"

Besteak beste, lan harremanak, eredu ekonomiko, industria politikak eta politika sozialak nolakoak izan behar diren erabakitzea langileei dagokiela dio-

te. Horrez gain, estatuetatik inposatzen ari diren "agenda ultraneoliberalak" etenik ez dute la salatu zuten eta baita estatuak krisiaren kudeaketa guztiz antidemokratikoa egiten ari direla ere: "Krisia iruzur handi bat da. Horren aitzakiarekin langileria kontrako neurri guztiak justifikatzen dituzte. Lan harreman eredu deuseztatu dute eta mende bat atzera eramane nahi gaituzte", esan zuen LABeko eskualdeko arduradun Jose Ramon Kortabarriak.

Gasteiz eta Iruñeko gobernuen jarrera ere kritikatu zuten LABeko ordezkariak. Diotenez, Madril-dik datozen "neurri guztiak zuzenean" aplikatzen dituzte, publi-

koki erreformen kontrako adierazpenak egin arren. Politika horien ondorioak gure eskualdean ere igarri direla adierazi zuten, batez ere irakaskuntzan, osasungintzan eta industria mailan. Azken arlo horren adibide moduan jarri zuten Fagor Etxetresnak eta Cegasaren itxierak. Gaineratu zuten azken urteotan langabezia tasa bikoiztu egin dela.

Hori guztia salatzeke manifestazioa egingo dute Eibarren Maiatzaren Lehenean; 12:00etan irtengo da Untzaga plazatik eta 13:00etan ekitaldia egingo da. Osteko herri bazkarian izena emateko LABeko egoitzetara deitu beharra dago aldeaz aurretik, 943 82 04 89 telefonora.

Kepa Urra aretxabaletarra libre, 22 urteren ostean

Kepa Urra (Aretxabaleta, 1956) hilaren 21ean askatu zuten, 1992a ezker preso egon ostean. Almeriako El Acebuche espetxetik irten zenean zain zituen senide eta lagunak eta gauerako iritsi zen Aretxabaletara —argazkian—. Jose Ansean Castro poliziaren erailketan "beharrezko laguntzaile" izatea egotzita kondenatu zuten Urra.



EKAITZ FILARMENDI

ZABALIK

NEKANE SAN MIGUEL
goiena.net/komunitatea/



"Langile baten galderak..."

Historia) liburu baten aurrean", Bertold Brechten hitzak euskaratu, musikatu eta kantatuz liluraz bete gintuen Mikel Laboak urte batzuk duela. Kronikek gizon "handien" izenak besterik ez ohi dituztela aipatu ekartzen ziguten gogora, poeta handiak sortu (edo jaso?)tako hitzek: non emakumeak?, non langile, esklabo, soldadu, sukaldari...

Tebas, Babilonia, Erroma... gogora ekarriaz, pertsona batek, handia izanik ere, bakarrik ezer gutxi egin dezakeela zioen modu zabalean. Hor behar duela taldearen, multzoaren, jenderen bultzada, sostengua, indarra..., eta hala ere, Errege, Lehendakari, Buruzat hartzen denaren gogorapena besterik ez langileak irakurtzen zuen liburuan.

Horregatik "Zenbat historia, hainbat galdera" errepikatuz bukatzen zuen kanta... Bukatu, edo soka luzeari hasiera emateko modu bat ote? Poetek ohi duten erara hitz gutxiz gogoe-ta zabalari atea irekitzen baitzion. Lana egin izana, ahalmenaren erakusle? eta ahal izatea ardura hartzearen iturburu (ala emari?).

Ari finez osatzen da ehuna, bata besteari lotuta, denbora luzez lan eginik, eta denbora ere behar zerbait usteltzeko, hainbat bizkarroien eraginarekin batera. Ustela egin, nekez euskarririk gabe, landuz ez bada: batzuetan bakteriak berariaz hurbildu eta nahastuz hondatzen da gaia, baina beste askotan bizkarroiei haizea emateko, beste aldera begiratze hutsa nahikoa omen.

Hala ote behin eta berriz inoren dirutik baina jenderen beharrentzat bildutakoa bereganatzen duenari botoa ematen diogunean? Edo..., "gure" zergatxoak ez ordaintzeko ahalegina Suizara guztiona den dirua eramango duenaren poltsaren oihalean ari bat gehitzea ote?..., edo laguntza publikoak eskaterakoan gezurtxoak esatea, bizkarroiei haizea hauspotzea ote?, galdetuz jarraitzen ote du langileak gaurko kronikak irakurtzean?...

USTEAK USTE

MIREIA BIKUÑA | mbikuna@goiena.com

Bidegorriaz hausnartzen

Oñatiko bidegorria asko erabiltzen dut, batez ere aste bukaeretan eta paseatzeko. Dotore geratu da. Erosoa da oinezkoek eta bizikletek batera erabiltzeko, eta arrisku bakoa. Urte askoan eskatu dugu bidegorria, batez ere, Kasablanka hasieran eta Madalena inguruan errepidea alderik alde zeharkatu beharra genuelako. Horrek zekarren arriskuarekin. Bada, bidegorriak arrisku horiek ezabatu ditu. Baina oraindik badaude bidegorria alde batera utzi eta errepidetik pasatzen direnak. Ez dut ulertzen! Horiek ez dute arriskurik ikusten? Autoak abiadura handian pasatzen dira handik. Istripuren bat egonez gero, oraingoan ez da aitzakiarik egongo.

KALE INKESTA

Greenpeacek dio mende bukaerarako itsasoa kilometro erdi barrualdera sartuko dela; alarmistak direla uste duzu?



SERGIO VILLAR
ARRASATE

"Muturrera jo dute, beharbada, baina zer gerta daitekeen mahai gainean jartzea ondo dago, konponbidea topatu eta aurrera egiteko".




LOURDES ORUNA
ARRASATE

"Kostaldean orain gertatzen dabilena ere itsasoari lapurtutakoaren ondorioz da. Ingurumen kontuan guztiok dugu gure erantzukizuna".



ROSAMARI DEL OLMO
ARRASATE

"Benetan serio hartu beharreko kontua da, guk ez ezagutu arren ondorengoek jasan dezaketelako. Guztion ardura da, gainera".



ENRIKE ALTUNA
ARRASATE

"Arrazoi apur bat badutela uste dut. Geuk eta gobernuek, guztiok egin beharko genuke gehiago ingurumena zaintzeko".

HANDIK ETA HEMENDIK

Mozkor Ipuinak

Eramun Turutarena
ene.turutarena.net/

Txikitari ikasi genuen ipuinak badituela sarrera, korapiloa eta amaiera. Ximplea behar duela, pertsonai gutxiarekin, ulerterraza. Eta eragin behar duela emozio konkretu eta zorrontz bat. Zazt!

Asmatzen al ditugu ipuin berriak egunerokoan? Edo sarrera eterneltan dantzatzen ote ditugu gogotik eskegitako hari muturrak elkar gurutzatzearen beldur. Edo txirikordak osatzen al ditugu hesteekin hauei behin eta berriz korapilo berdina ezarriz, korapiloa korapiloaren gainean. Non da zaztada?

Batzutan pentsatzen dut alkoholak mugitzen duela gure mundua. Parranda gauak proposatzen duela barrenak askatzeko kontakizun bat. Pertsonai xebeekin. Kitzikagarria. Eta nahastu dituela hari muturrak, mutazioak, gure egunerokoaren DNA eboluzionatzeko, bizitzaren nobela rekapitulatzeko... nahiz eta biharamenuean gauza askotaz damutu.

Edonola, egunerokoaren itoaldi eta parranda arnagune

sekuentzia hauen errealitatearen bertsioak, badu perbertsioetik. Argi ilunetik eta eztanda neurrigabetik.

Errutinak mozkor ipuinetik ikasi behar du.

Afrika Pirinioetan amaitzen da

Luis Aranberri 'Amatiño'
eibar.org/blogak/amatiño/

Afrikatik iritsi ohi zaigun haize bolada beroak ez du ekarri izaten sargoria bakarrik, baita Sahara basamortuko harearen arrastoak ere. Behar bada kale-bazterretan nekez igartzen diren zantzuak, baina mendi-tontorretako gailur zuriak nabarmen asko gorritzen dituztenak. Bistan da, Afrika Pirinioetan amaitzen da.

"Afrika Pirinioetan hasten da" delako esaldia arrunt samarra izan zen XX. mendean, Espainia Europar Batasunean 1986an sartu arte edo bai behintzat. Jatorria nabarmen lehenagokoa da, ordea. Alexandre Dumas idazleak jarri omen zuen indarrean, nahiz bera jaio aurreko mendean Frantzia zabaltzen

hasia izan. XIX. mendean erabat ezaguna zen Espainian bertan eta, Unamuno bilbotarraren kasuan (*que inventen ellos*) izan ezik, beti ere Europako estatu garatuaren artean Espainia gutxietsi nahirik han-hemenka erabilia.

Jakina, dena ez zen gutxiespen soila, ezta asmakizun hutsa ere. Historia gogoratu besterik ez dago, eta edozein kultura eta ohitura-mota, García de Cortazar historialariari jaramonik egingo bazaio behinik behin.

Ez dut nik esango Afrika Pirinioetan hasten denik, baina bai, ostera, Afrika Pirinioetan amaitzen dela. Edo, beste modu batez esanda, Afrikatik etorri ohi den hego haizearen aztarrenak Pirinioetaraino heldu izaten direla, Aste Santu honetan bertan nabaritu izan denez.

Izan ere, Afrikatik iritsi ohi zaigun haize bolada beroak ez du ekarri izaten sargoria bakarrik, baita Sahara basamortuko harearen arrastoak ere. Behar bada kale-bazterretan nekez igartzen diren zantzuak, baina mendi-tontorretako gailur zuriak nabarmen asko gorritzen dituztenak. Afrika Pirinioetan amaitzen da.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Aitor Izagire

Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailkatu arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna
Monika Belastegi
Maketazioa Inaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano, Zierza Martin,
Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Argutxane Gaintzarain,
Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa


EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Goiena Klubeko apirileko zozketak

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!



E-reader

SONY E-reader irakurgailu elektronikoa

Parte hartzeko sariaren izena:
E-reader

Arrasateko hipermerkatua



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketagai

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

ARRIKRUTZ
onatiko kobak



GPS-a

Navman F360 GPSa

Parte hartzeko sariaren izena: GPS

Arrasateko hipermerkatua



Otarra

Bidezko merkataritzako produktuez osaturiko otarra

Parte hartzeko sariaren izena: Harreman

www.harremandenda.org

Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

Telefonoz: 943 25 05 05

E-postaz: kluba@goiena.com

WhatsApp: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Oier Bolibar | Ingeniaria eta energia berriztagarrietan aditua

"Energia fotovoltaikoa konpetitiboa da leku askotan, eta dagoeneko alternatiba bat da"

- ▶ Sektore fotovoltaikoko Suitzako enpresa baten lan egiten du Oier Bolibarrek
- ▶ Haren esanetan, "estatua kenduta, Europan oso panorama ona dute berriztagarriek"

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Begararra da Oier Bolibar, baina aspaldian herritik urruti dabil: Bartzelonan bizi da eta Suitzako sektore fotovoltaikoko talde baten Salmenta eta Merkatu Garapen zuzendaria da Afrika eta Hego Amerikarako. Industria Antolakuntza egin zuen eta energia berriztagarrietan aditu bihurtu da.

Nola dago energia fotovoltaikoaren sektorea Europan?

Espainiako estatua kenduta, beste herrialde guztietan oso panorama baikorra du. Batez ere azkeneko urteetan energia berriztagarriek eta zehazki fotovoltaikoak izan duen garapenarekin, orain arte ezagutu izan ditugun energia iturri tradizionalekin alderatuata, esan dezakegu erabat konpetitiboak direla, erabat.

Energia fotovoltaikoa iturri inportante bihurtzeko Europarendako, hortaz?

Bai, duda barik, eta ez etorkizunera begira bakarrik; errealitatea da. Alemanian, azken lauzpabost urtetan, 36 gigawatt-eko kapazitatea instalatu dituzte energia fotovoltaikoan oinarrituta. Hori 36 zentral nuklearrek sortzen duten energia da. Espainian 4 gW dago instalatuta. Eta Alemanian Espainian baino askoz eguzki gutxiago egiten du.

Etxean jasotzen dugun energia elektrikoa nondik dator?

Desberdina da EAE, Espainiako estatua edo Nafarroa begiratzen baditugu. EAEko begiratzen badugu, energia berriztagarriak bakarrik %6 dira; beraz, ezin dugu esan daukagun matrize elektrikoa EAEn nolabait berriztagarria denik, inondik inora. Eta alderantziz, Nafarroan, jatorri berriztagarria daukan elektrizitatea %66ra iristen da ia-ia. Eta gainera, desbedintasuna Nafarroa eta EAEn artean hauxe da: EAEk kontsumitzen duenaren %44 inportatu egin behar du, eta Nafarroak %11 esportatu egiten du.

Elektrizitate enpresa handiek ez dute hor inongo zeresanik? Bere instalazioa egin eta burujabe bihurtzeko edozein?

Energia berriztagarriak eman duen aukera hauxe da: edonon produktore izateko aukera. Inbertsio maila txikiagoak behar dituzte generazio fotovoltaiko plantek, eta horrek, orain dela urte batzuk Espainiako Gobernuak ematen zituen laguntzekin batera, ahalbidetu egiten zuen inbertitzaile txikiak merkatuko zirriritu batek sartzea. Orduan, merkatuan ekoizle berriak egoteko edo elek-



Oier Bolibarrek Industria Antolakuntza ikasi zuen MU, eta Bartzelonan bizi da gaur egun. | OIER BOLIBAR

trizitate hornitzaile kopurua handitzeko aukera ematen zuen horrek eta, neurri baten, monopolioa zuten bost enpresa handiei merkatuaren zatitxo bat kentzeko.

Elektrizitatearen erreforma onartu dute. Zer diozu?

Sektore honetan garbi ikusten dugu energia enpresa handiei mesede egingo dien erreforma dela. Esango nuke espresuki beraien interesak defendatzeko dela, izan ere, erreforma horrek berriztagarriek ematen zitzaizkien dirulaguntzak atzeraeraginarekin mozten ditu (gaur egun berriztagarriak lehiakorrak dira inbertsio bat egin delako eman zitzaizkien dirulaguntzei esker). Teknologia hori garestiagoa zenean inbertsioak egin zituzten ekoizle horiek ez dute subentzio gehiago jasoko eta ez da errentagarria

"EAEn, jatorria berriztagarria du energiaren %6k; Nafarroan, %66k"

"Erreformak mugatu egiten du berriztagarrietan inbertitzeko aukera"

izango ekoizten jarraitzea, ez dutelako instalazioa amortizatu-tako. Orduan, merkatutik produktore txiki horiek kendu eta generazio produktore handien esku uzten dute.

Beste alde batetik, erreforma honek mugatu egiten du erabat berriztagarrietan inbertitzeko aukera, batez ere autokontsumora begira. Erreforma horrek hauxe dio: zuk kontsumitu nahi baduzu zuk ekoizten duzun energia, peaje batzuk ordaindu behar dituzu energia enpresak aukera ematen dizulako etxean elektrizitatea edukitzeko. Horrek fotovoltaikoa etxean instalatzea lehiakorra ez izatea dakar. Lortzen dena da inork ez sortzea bere energia eta denok komertzializatzaile handietatik kontsumitzea, eta handi horiek merkatuaren bolumenari eustea.

Europako tarifarik handienetarikoa dugu eta gainera ez dago modurik jakiteko kW batek ze koste daukan...

Modua jakiteko badago, baina ez dago interesik jakiteko zeintzuk diren ekoizpen koste horiek, orduan jakingo genukeelako azken urteetan elektrikek ze joko egin duten tarifekin. Proposamen bat aurkeztu zuten Espainiako Diputatuen Kongresuan energia berriztagarrien elkarrekin, energia enpresa handiei auditoria egiteko, eta Kongresuak atzera bota zuen. Izan ere, oso lotura estua dago interes enpresarialen eta politikoen artean. Ikusten da

zenbat politikarik bukatzen duten bere ibilbidea enpresa handi horietako kontseiluan. Ez dago interesik benetako generazio kosteak zeintzuk diren azalertzeko, baina guk badakigu esaten duten baino txikiagoak direla, seguru.

Kontsumitzaileak ezer egin dezake horren aurrean?

Berez, aukeretako bat zen, eragingarritasun energetikorako erremintez baliatuta, kontsumoa jaitea; baina fakturaren zati finkoaren pisu proportzionala igo egin dute, eta kontsumoarena, jaitsi. Erabaki hori aurrezpenaren kontra doa zuzenean.

Beste aukera bat zen norbera bere energiaren produktore izatea eta, azkenean, erreformarekin hori mugatzea lortu dute, peaje horiekin. Orduan, egia esan, orain aukera gutxi daukagu.

"Energia berriztagarriekin, edozein izan zitekeen ekoizle"

"Ekoizle txikiak kendu eta merkatua handien esku utzi du erreformak"

Enpresendako ere eragina izango du erreforma horrek, ezta?

Enpresa handiek aukera gehiago dute elektrindarraren prezioa zuzenean negoziatzeko. Enpresa txikiak merkatuak ematen dien prezioari lotuta daude eta ezer gutxi egin dezakete. Merkatua 98an liberalizatu zuten, baina benetan ez da merkatu libre, oligopolio bat baizik, enpresek definitzen dute-eta nola jokatu.

Behar baino potentzia gehiago dago instalatuta Espainian. Zer esan nahi du horrek?

Espainian 107 gW-ko potentzia dago instalatuta, baina bakarrik 43,5 kontsumitzen dira. Azken 10 urteetan, Espainian, ziklo konbinatutako 51 zentral instalatu dira, eta horien artean 27 gW-ko kapazitate erantsia dago. Ziklo konbinatutako zentraletatik erdiak baino gehiago gelditu daude, energia hori behar ez delako. Baina inbertsioa eginda dago, eta enpresek hori amortizatu nahi dute, eta jendeak ez dezala bere energia sortu.

Europan ze jatorria dauka elektrindarrak?

Denetarik dago. Frantziar nuklearra da erabat. Alemanian, azken urteetan gorakada izan dute eolikoak eta fotovoltaikoak, eta Alemaniaren eta Suitzaren politika da energia nuklearra desmantelatzeko joatea. Europan, zentral nuklearrak ekialdeko herrialdeak dabilta eraikitzen. Ingalaterran beste bat eraiki dute, eta zeukaten aurrekontua bikoiztu egin denez, orain energia hori berriztagarri bidez sortuko dena baino garestiagoa izango da.

GoiEner eta antzeko kontsumitzaileen kooperatiba batzuk sortu dira. Zer diozu?

Oso ondo ikusten ditut, alternatiba gisa eta energia berriztagarriek bultzada emateko. Kataluniko Som Energia izan ziren lehenengoak, eta horren ildotik etorri zen GoiEner. Lehia dira enpresa handiendako, eta, batez ere, helburu soziala dute: kooperatibak dira, bezeroak bazkideak dira, eta jatorri %100 berriztagarria duen energiaren kontsumitzaile garbiak dira.

Aurreikuspen bat?

Berriztagarriak etorkizuna bakarrik ez, oraina ere badira. Konpetitiboak dira leku askotan, eta alternatiba bat izango dira. Beste gauza bat da herrialdeek euren legedia aldatzeko ze gaitasun duten energia iturri berriei aukera emateko euren matrize energetikoan integratzeko. Hor interes asko daude, eta ez bakarrik Espainiako estatuan.

HERRIAK

ARETXABALETAKO

Loramendiko gazte taldeak eman du lehen pausoa

Maiatzaren 4an da bigarren bilera eta herriko gazte euskaltzaleek atea zabalik topatuko dute

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Gazte taldea sortu gura du Loramendi elkarteak, eta nahi horrek lehen pausoa eman du hilabete honetan bertan. Lehenengo bilera egin zuten gazteekin apirilaren 10ean, eta hurrengo hitzordua zehaztu: maiatzaren 4a, domeka, 17:00etan, udaletxe zaharrean. 14 eta 18 urte arteko gazteek atea zabal-zabalik topatuko dute.

Loramendiko kideak aspalditik zeuden hori egiteko gogoz eta abendua ezker martxan jartzekotan zebiltzan, Loramendiko bertako aisialdi taldeko hainbat lagunekin. Kontu bat lehenengo eta beste bat gero, atzeratu egin da, baina sekula ez da berandu fruituak gozoak direnean, eta, hala, emaitza bikainak lortzeko asmorekin, dagoeneko jarri dute abian gazte taldea. "Gazte euskaltzale asko dagoela herrian ez dugu zalantzarik, eta horiei biltzeko gune bat, topaleku bat, eskaintzeko gogoz geunden. Sarritan, geuk, helduok, antolatzen ditugu eurendako ekitaldiak, eta uste dugu gazteek antolatu behar dituztela gazteendako kontuak, inizatiba eurek izan dezatela", dio Josu Retolatzak, Loramendi elkarte arduradunak. Eta gaineratu du: "Sarritan, mezu negatiboekin ibiltzen gara: *gazteek ez dute ezer egiten...* Eta egin gura dutenei lekua eskaini gura diegu guk". Gazte horiek Ibone Arrieta eta Jon Ander Alberdi aretxabaletarak izango dituzte lagun, dinamizatzaile legez.

Arrasatearren gonbidapena

DBHko hirugarren eta laugarren mailetako eta batxilergoko ikasle guztiak jaso dute egitasmoa ezagutzera joateko gonbidapena, 14 eta 18 urte arteko herriko gazte guztiak. Lehenengo bileran gutxi batzuk elkartu ziren, baina baita elkartutakoak aurrera egiteko gogotsu agertu ere. Gainera, aparteko lagunak izan zituzten bilera hartan, Arrasateko Ttak taldekoak, Retolatzak, gainera, egun horretako egitaraua aurreratu zien: "Aurtengo Euskerien Egunerako pentsatuta daukaguna da: kuadrillen arteko olinpiadak; umeendako jolasak; bertso poteoa; herri bazkaria; bazkalostean bingo; elektro-txaragaren kalejira; street boulder txapelketa; eta larraindantza 01:00 aldera".



Aretxabaleto gazteak Arrasateetik etorritako Ttak taldekoekin batera gazte taldea sortzeko lehen bileran. | M.A.

tzen dira Ttak taldearen inguruan, hiru belaunaldi; hala ere, jakinarazi zieten ez direla lagun asko behar halako kontu bat martxan jartzeko: "Zerbait antolatzeko hiru lagun nahikoa dira, eta gero zuen arrimuan hurbilduko dira gehiago. Gainera, ez dago zertan kuadrilla osoa etorri".

Arrasatearren aurrera egitera animatu zituzten, baita euren bilera eta ekitaldietara gonbidatu ere: "Maiatzaren 11n Herri Urrats da eta inguru horretara joateko asmoa dugu aste bukera pasa. Animatuz gero esaiguzue, pozik hartuko zaituztegu".

Euskerien Egunerako laguntza

Elkartutako gazteek gustura entzun zituzten arrasatearren esandakoak, eta irteerak eta elkartrukeak egiteko gogoa agertu zuten. Lanerako ere gertu azaldu ziren, eta maiatzaren 17an egingo den Euskerien Eguna izango da hori erakusteko proposa. Retolatzak, gainera, egun horretako egitaraua aurreratu zien: "Aurtengo Euskerien Egunerako pentsatuta daukaguna da: kuadrillen arteko olinpiadak; umeendako jolasak; bertso poteoa; herri bazkaria; bazkalostean bingo; elektro-txaragaren kalejira; street boulder txapelketa; eta larraindantza 01:00 aldera".

Ekitaldiotan laguntzeko gertu agertu ziren gazteak; hurrengorako, maiatzaren 4rako, hasiko dira kontuak zehazten. Ordurako, gainera, lagun gehiago elkartzeko asmoa dute. Eta Arrietak herriko

gazte guztiak gonbidatu gura izan ditu: "Kuadrillakoek lagundu ez arren gogoa izanez gero hurbildu taldera beldur barik; giro ona dugu eta guztion artean zerbait polita sortuko dugu, seguru!".

ESANAK

"Herriko gazte euskaltzaleei topaleku eskainiko diegu"

JOSU RETOLAZA | LORAMENDI ELKARTEKO ARDURADUNA

"Gazteek antola ditzatela gazteendako kontuak"

'Gaztekeixatan'

Gazteak xaxatzeko bideotxo bat egin zuen Loramendiko herriko hainbat erretiraturen laguntzarekin orain aste batzuk (Youtuben dago): *Gaztekeixatan*. "Gazteek egiten ez dutena egiten dabilzala" diote bideo horretan; hortaz, Josu Retolatzaren esanetan, gazteek dute erronka esku artean, eta "erretiratuei erantzuteko beste bideo bat egitea polita litzateke". Hori jakinik, ez dute atzera geratu gurako.



Erretiratuek gustura gaztekeixatan. | LORAMENDI ELKARTEA



IBONE ARRIETA
DINAMIZATZAILEA

"Gogotsu ikusi ditut etorri diren gazteak eta neu ere animatuta nago"

Ibone Arrieta eta Jon Ander Alberdi izango dituzte gazteek lagun taldean. Begirale lanak baino gehiago, dinamizatzaile lanak egingo dituzte, eta gura duten hori antolatzen lagunduko diete.

Loramendiko ideia proposatu zizunean zer iruditu zitzaizun?

Polita, herriko gazteak mugiarazteko da-eta. Erretiratuek egindako bideoak, gainera, zer pentsatua eman zidan...

Eta ze itxura hartu diozu lehen bilerari?

Asko ez gara elkartu, baina etorri direnak gogotsu ikusi ditut; hortaz, neu ere animatuta nago. Ea horiek beste batzuk animatzen dituzten...

Zenbateko taldea osatzeko asmoa duzue?

Ez dakit, 10-12 bat elkartzea ondo legoke, gehiagi ere ez, lanerako zailagoa da-eta.

Gazteekin lanean ibilitakoa zara aurretik ere, ezta?

Bai, umeekin Aretxabaleto udaleku irekietan eta gazteekin Arizmendiren udalekuan. Gainera, musika eskolako dantza taldeekin boluntario lanak egiten ditut.

Eta bi dinamizatzaileok mar-txosoak zarete, gero!

Bai, berez bai; gero, ikusi behar zer ateratzen den...

ONATI

Arrabol gaineko sprint lehiaketa gogorrak gaztelekua bete zuen

34 sprint desafio egin ziren, eta Jon Ander Arakamak irabazi zuen froga

IMANOL GALLEGO | ONATI

Bi lehiakide, bizikleta bana, arrabolak, zangoak eta publikoaren txaloak. Aurretik baina 500 metro eta marka guztia apurtzeko gogoak. The Gold Sprints lehiaketa bat baino gaztelekuan zegoen giroa ikusita festa bat zirudien.

Zapatu arratsaldean Oñatiko gaztelekua jendez bete zen eta 38 kementsuk onartu zuten zirudiena baino gogorragoa zen sprinta egiteko desafioa. Guztietan bizkorrena Jon Ander Arakama beasaindarra izan zen.

Lehen faseko 16 denbora onenak ligaxkara pasa ziren eta bigarren fasean hasi ziren kan-

poraketak. Frogak iraun zuen hiru orduetan 34 desafio egin ziren, finalekoa gainera, kilometro batekoa izan zen.

Guztia etxekoa

Sariak Beasainera ihes egin bazuen ere, froga 100% oñatiarra zen. Antton Zubiarekin batera, herriko jende askok lagundu baitzuen froga prestatzen. Aipatzekoa froga kudeatzen laguntzeko diseinatutako softwarea.

Zozketako irabazleak


III. Kantoikrit froga aurrera ateratzen laguntzeko zozketa ere egin zuten, eta lehen bi saridunek,

zapatuan bertan jaso zuten saria. Hirugarren sariduna 1016 zenbakia izan zen, eta txartelaren jabeak, bere saria eskuratzeko, kantotrip@kantotrip.com helbidera idatzi bidali beharko du.



MARIA AKORDAGOITIA
PARTE-HARTZAILEA

"Denborari ez diot garrantzirik eman, nire asmoa 500 metroak ongi egitea zen, eta pozik nago egindako sprintarekin".



GORKA HOYOS
PARTE-HARTZAILEA

"Oso froga gogorra da eta metro gutxi izan arren, oso luzea egiten da. Abiadura altu hori mantendu beharra oso zaila da".



Binaka lehiatu ziren parte-hartzaileak. | JOSETXO ARANTZABAL



Neska-mutikoak Eulateren beiratea miresten. | MONIKA BELASTEGI

ONATI

Hogei bat neska-mutikok Eulateren obra ezagutu eta esperimentatu zuten

JAGOBA DOMINGO | ONATI

Arantzazutik bertatik, Oñatitik, Donostiatik zein Irunetik jakin-minez, hainbat neska-mutiko egon ziren zapatuan Arantzazun Xabier Alvarez de Eulate artista frantziskanoaren obra ezagutzen eta horren inguruan esperimentatzen. Eulateren margolanak eta beirateak iku-

si ostean, gaztetxoak taldetan banatu ziren eta euren eskuekin beirateak, margolanak eta eskulturak egin zituzten.

Gurasoak txundituta

Eulate, argi handi bat tailerlean egindako lanekin, guraso asko txundituta utzi zituzten neska-mutikoe.



MARTIN ARZA
ARANTZAZU

"Ni Arantzazun bertan bizi naiz, baina gaurkoan Eulateren inguruan gehiago ikasteko asmoz etorri naiz hona. Beirateetan ikusi daitezkeen irudiak gustatzen zaizkit".



HELENE ZABALETA
ONATI

"Asko gustatu zaizkit Eulatek beirateetan erabiltzen zituen koloreak. Horrez gain, barrutik kolore asko dituzten arren, kanpotik ez dira berdinak, kolore gutxiago dituzte".



IMANOL GALLEGO

LEINTZ GATZAGA

Bengoerrekako parkea txukundu dute

15 bat gatzagarrek auzolanean sastrakak kentzen, bidea oztopatzen zuten zuhaitz batzuk mozten eta iturria eta parrilla atontzen igaro zuten zapatu goiza. Bengoerrekako parkea bisitari ugari jasotzen ditu, "jendeak erreka saltoetan hartzen du bainua", eta parkea oso gertu dagoenez, "ondoren mokadutxo egiteko toki aproposa da", azaldu du Eugenio Otxoa alkateak. Lanok ez dira parkera mugatu: Gorosarririk Gatz museora doan bidea zerin herritik Deba ibaira doan bidexka ere garbitu zituzten. Beste saio batean seinaleketika ere berrituko dute.



Martitzenean xaboi ponpak egin zituzten. | MIRARI ALTUBE

ONATI

Neska-mutikoak ez dira aspertu opor egunetan

MIRARI ALTUBE | ONATI

Aste Santu eta Pazko Astean herrian geratu ziren Oñatiko neska-mutikoe, ez zuten aspertzeko astirik izan, Txaloka ludotekak jolas eta jarduera mordo antolatu zizkien-eta. Xaboi ponpak, ibilaldiak, zine emanaldiak... denetik izan zuten. Hortaz, etxe zuloan aspertuta egon beharrean, eta sarritan

ingurukoak gogaitzen, Txalokaren eskutik, ondo pasatzeko aukera paregabea izan zuten Oñatiko gaztetxoek.

Aste Santuan, eguraldi ona lagun, ume mordo elkartu ziren plaza inguruan wii-arekin jolastu edo altxorraren bila jarduteko. Pazkoa Astea baina, aterpe azpian igaro arren, horretan ere ederto pasa zuten.

ARRASATE

Jai giroa eta umorea, zapatuan gaztetxearen 23. urteurreneko ospakizunean

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

11:30etan ekin zieten urteurreneko ospakizunei Arrasateko gaztetxeak. Herriko plazan batutako taldetxoek albokariaren doinuak ez ezik, mamorro batzuen laguntza izan zuten kalejira egiteko orduan. Ondoren, trikipoeteoren txanda iritsi zen.

Barruak ongi busti eta gero, gaztetxean bertan prestatutako baba, aza eta arrozarekin bete zuten tripa 50 lagun inguruk, eta postre gisa monologo bat ere izan zuten. Bazkaldutakoa barre artean

liseritu ostean, gazteak kalera irten, eta hainbat tabernen kanpoan, *karro olinpiadak* egin zituzten. Eguna borobiltzeko, gaueko 22:30ean Estricalla eta The Capaces musika taldeekin eman zioten amaiera aurtengo Gazte Egunari. Ohi moduan baina, batzuek, hurrengo goizeko gosariarekin bukatu zuten ospakizuna.

Ospakizunak garrantzia izan arren, festako gazte batek aipatu moduan, "gaztetxeak abiarazitako ereduaren egonkortasuna ospatzeko eguna izan da".



The Capaces taldeak erritmoa jarri zion zapatu gauari. | JOSETXO ARANTZABAL



Mamorroek ere hartu zuten parte triki poteoan. | IMANOL GALLEGO



Festa gehienetan bezala, hemen ere, ospakizuna mahaiaren bueltan egin zuten. | J.A.



JOSETXO ARANTZABAL

ONATI

Olabarrietako jaiak arrakasta itzela izan dute

Egubakoitzean ekin zioten Olabarrietan jaiak ospatzeari. Aste bukaeran giro aparta izan zuten, eta auzora gerturatzeko autobusak bete egin ziren. Gaztetxoek ederto pasa zuten eurentzako antolatutako jokoetan, baina gerturatutako jendeaz gain, auzotarrek ere gozatzeko aukera izan zuten. Auzo afarian adibidez 50 pertsona batu ziren. Jaiak baina ez dira bukatu, eguaztenean erromeria egongo da Miren, Agur eta Oier taldearekin eta maiatzaren 1ean, 11:00etan meza nagusia, 12:00etan pilota txapelketako finala, 13:00etan luncha eta 17:00etan mus txapelketa egongo dira.



BERGARA

JOSETXO ARANTZABAL

Elorregin mahaiaren bueltan

Ez dakigu Elorregin San Prudentziotan zizak eta barraskiloak jateko ohitura duten, baina jaiak mahaitik gehiegi urrunduta gabe ospatu zituzten aste bukaeran. Zapatuan auzo bazkaria Xabier Amuriza eta Peñagarikanok girotu zuten. Domeka goizean aldiz meza eta pilota partiduen ostean hamaiketako izan zuten. San Prudentzio eguna baina gaur da eta 19:00etan meza eta ondoren afaria izango dituzte.



San Josepe kalean egingo dira berriro urbanizatzeko obra garrantzitsuenak. | GOIENA

Udazkenean hasiko da San Josepe berritzeko plana

Auzoa bost fasetan urbanizatuko da berriro; 2.717.710 euro da aurrekontua

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Udalak apirilaren 14ko Tokiko Gobernu Batzarrean onartu zuen San Josepe kalea berriz urbanizatzeko proiektua. Bost fasetan egingo dira lanak eta proiektu osoarendako aurrekontua 2.717.710 euro da.

Udalak aditzera eman duenez, bi helburu nagusi ditu proiektua bost fasetan burutzeak: "Auzokideengan izan dezakeen eragina murriztea eta Udalak obra zatika finantzatzea".

Lehen fasea, udazkenean

Lehen fasearekin udazkenean hasia gura du Udalak. Hain zuzen ere, San Josepe eta San Andres kaleak elkartzen diren puntutik San Josepeko etxebizitzaren parearen guneari eragingo dio.

San Josepe kalearen hasieran espaloï berri bat egingo dute, eskailerak irisgarritasun irizpideetara egokituko dute eta erre-pidea bera zabalduko dute.

Gainera, Udalak aurkeztu duen proiektuaren arabera, birligune bat eraikiko da San Josepe kalearen goiko aldean, autobusek eta hondakinen bilketarako kamioiek "arazo barik" buelta eman dezaten. Lehen fase horretarako 661.593,10 euro bideratu dira.

Beste lau fase oraindik

Bigarren fasean (549.458 euro) berdegune bat egokituko da San Josepe eta San Andres artean, eta gainera, oztopo arkitektonikorik gabeko lotura egingo dute, baita haur parkea egokitu ere.

Haur parke horretan edadetuak gimnasia ariketak egin dezaten gunea jarriko dute.

Hirugarren fasean (183.783 euro), San Josepe kalean egingo dira lanak. Etxebizitzaren aurreko gunean dauden aparkalekuen ordenazioa aldatuko da eta oinezkoendako hobetuko da kalea, espaloïak zabalduz.

Laugarren fasean (258.907 euro) aurreikusten da umezaintza inguruan berdegune bat egitea. Horrez gain, euste-hormak ere berrituko dituzte, hala behar izanez gero.

Bosgarren eta azken fasean (193.234 euro) Etxaluze eraikinarren ingurua egokituko da. Gune horretan espaloïak irisgarriagoak egingo dituzte; zabalagoak egingo dituzte, besteak beste.

Laugarren amaitu du denboraldia Kanpanzar Arrasate Rugby Taldeak

Ekainean jokatuko den Zazpiko Txapelketa ari dira prestatzen orain Igor Isasiren mutilak

Z.V.D.M./J.B. | ARRASATE

Kanpanzar Arrasate Rugby Taldeko seniorrek ez dute partidu ofizialik 2013-2014 denboraldian. Izan ere, Euskadiko Errugbi Federazioak Kirol Diziplinarako Batzordeak galdutzat eman dio Hernani B taldearen kontrako norgehiagoka Arrasateko taldeari, partidua jokatzea ez geratu eta zatietako bat ez epaitzeagatik.

Partidua galdutzat emateaz gain, lau puntu kendu eta 200 euroko isuna jarri zieten arrasatearrei. Partidu hartan, bi taldeek partidu aurreko beroketa egin zuten, baina ez zen epailerik agertu Landaren: "Federazioa deika eta deika aritu ginen, baina erantzuna izan zen epaile guztiak okupatuta zeudela. Horrelako kasuetan arautegiak dio talde bakoitzak zati bana epaitu beharra daukala, baina partidua jokatu gabe Hernanitik alde egitea erabaki genuen", diote. Bestalde, Euskadiko Ligako zenbait

talderen jarrera ere salatu dute Kanpanzar ARTkoek, bigarren taldearekin lehen taldeko jokalariek zelairatu izan dituztelako. Federazioak baimenik ez eman arren Uribealde B-k lehen taldeko jokalariek zelairatu zituen eta horrek "sutan" jarri zuen talde arrasatearra, diote, ez delako lehen aldia halakoak gertatzen direna. Kasu horretan, Federazioak aintzat hartu zuen Kanpanzar ARTk bidalitako kexa eta irabazitzat eman zieten partidua.

Zazpiko 16. Txapelketa

Gorabeherak gorabehera, arrasatearrek laugarren amaitu dute denboraldia, 25 punturekin. Multzoko liderra Iruñea izan da 33 punturekin, bigarren Getxo geratu da 28 punturekin eta sarrailagileen aurretik Errioxak amaitu du, 27 punturekin.

Bada, Igor Isasiren mutilak ekainean jokatuko den Zazpiko 16. Txapelketa ari dira prestatzen orain.



Iruñearen kontra jokatutako partidua, Mojategin. | IMANOL SORIANO

NIRE USTEZ

INES ALDAI



Paperezko prentsa, mesedez

Egun hauetan zahartu egin naizela konturatu naiz eta ez bakarrik denboraren joanak nire aurpegian utzi dituen zimurdurengatik, beste garai batzuk gogoratu ditudalako baizik. Eta, kankar diogen moduan, beste garai haiek hobeak zirela iruditu zaidalako.

Nire amona etorri zait gogorra. Nola harritzen zen lehen

mugikorak -zapata antzeko haiek- erabiltzen hasi ginenean. Orain guri tokatzen zaigu garai berrietara egokitzea. Twitter, Tuenti, Facebook, Whatsapp, Telegram, Instagram... Izenak ikastea ere kosta egiten zait.

Baina 12 eta 16 urte bitarteko neska-mutikoak ikusten ditudanean, taldean, elkarri aurpegira begiratu gabe, elkar ezagutuko ez balute bezala eta nor bere pan-

"Helduok, adibidea eman behar dugunok, ia okerragoak gara"

taila txikiari begira eta bi eskuekin tekletuz, pena sentitzen dut. Beharragatik batzuetan baina erosotasunagatik beste askotan, gure seme-alabak uzten ditugu orduak eta orduak pantaila baten aurrean. Eskola gero eta informatizatuagoa da. Askotan etxerako lanak ere posta elektronikoz bidaltzen dituzte eta taldeko lanak egiteko ikasleek ez dute elkartzeko beharrik.

Eta gu, helduok, erabilera egokiaren adibidea eman behar dugunok, ia okerragoak gara. Honakoa da teknologia berrien aroa. Ni ere erabiltzailea naiz baina ez dut prentsa pantaila batean irakurriko, ezta inprimatutako liburu on bati uko egingo ere.

Literatura Solasaldiak bihar eta etzi Kulturaten, 'Las horas' eta 'Parisen bizi naiz' obren gainean

Literatura Solasaldien barruko komiki zikloa amaituta, literatura eta homosexualitatea gai moduan hartuta solasaldia egingo dute bihar, hilak 29, Kulturaten (18:30). Koordinatzailea Juanjo Olasagarre idazlea izango da eta *Las horas* liburua izango dute abiapuntu; gaztelarazko saioa izango da. Euskarazko solasaldia egun bat geroago izango da, hilaren 30ean. Koldo Izagirreraren *Parisen bizi naiz* poema liburua aztertuko dute, Garazi Arrula koordinatzailearekin batera.

Sanjuanetan kalez kaleko saltokietarako lizentziak eskatzeko epea zabalik dago, maiatzaren 17ra arte

Sanjuanetan Garibai eta Kontzezinon kalez kaleko saltokiak jartzeko lizentziak eskatzeko epea ireki du Udalak, eta maiatzaren 17ra arte egongo da zabalik. Lizentzien zozketa udal idazkariaren aurrean egingo da maiatzaren 19an. Emaitzaren berri emango da iragarki taulan eta Udalaren webgunean. Kalez kaleko saltoki horiek ekainaren 23tik -17:00etatik aurrera- 26ra bakarrik ireki daitezke, betiere indarrean dagoen araudiak edo udal agintariak ezar ditzaketan ordutegiak mugatuta.



Erakustaldian parte hartuko duten dendariak Oihana Garitanok desfilea iragartzeko egin duen kartela eskuan dutela. | MONIKA BELASTEGI

Moda desfilea egingo dute herriko 30 bat dendak maiatzaren 10ean

Herrian dagoen moda eskaintza zabala erakutsiko dute San Martin plazan

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

San Martin plaza modaren erakusleio bilakatuko da maiatzaren 10ean; izan ere, Bergara Bizi ekimenaren baitan diharduten komertzioek Bergara Bizi Lehen Moda Erakustaldia antolatu dute egun horretarako, arratsaldeko 18:00etan.

Herriko moda eskaintza zabalaz gozatzeko aukera paregabea izango da bertan, askotariko 30 komertzio hartuko dute eta parte: arropa, zapata eta apaingarriak dute berriena erakutsiko dute, baina orrazkera eta makillajeaz azken joerak ikusteko aukera ere egongo da.

Ume, gazte, gizon zein emakumeak goitik behera apaintzeko herrian dagoen moda eskaintzaren erakusleio izango da, azken batean maiatzaren 10eko desfilea. "Gure dendetako hormak gainditzea da helburua", esan zuen Ainhoa Ibarra dendarietako batek aurkezpenean; "Bergara bizia

dela eta eskaintza zabala duela erakutsi nahi dugu, adin, sexu eta gustu guztiendako".

10 metroko pasabidea

"T" hizkiaren formako pasabidea egokituko dute Udalaren laguntzarekin San Martin plazan. Udalarekin Seminariorantz aterako

da eta bertan 45 herritarrek egingo dituzte modelo lanak. Hain zuzen ere, bihar, apirilak 29, egingo dute lehen entsegua, 20:30ean, Zabalotegi aretoan.

Ikusleei dagokienez, ahalik eta gehien batu nahi dituzte eta horretarako gonbidapena luzatzen diete herritarrei.

Gainera, eroso egoteko aukera izango dute, "Udalak aulkiak laga dizkigu eta pilotxo bat jarriko ditugu plazan, jendeak ikuskizuna eserita ikusteko aukera izan dezan", azaldu zuen Ainhoa Garitanok, ekimenaren beste antolatzaileetako batek, eguenean Irizar jauregian egindako aurkezpenean.

Osterantzean, moda erakustaldia bi zatitan egingo dutela ere gehitu zuten eta erdian musika saioaren bat egongo dela gehitu zuten.

Zozketa eta lehiaketa ere bai

Desfilearen bueltan zozketa eta lehiaketa bana ere antolatu dituzte Bergara Biziko bultzatzaileek. Zozketari dagokionez, maiatzaren 2tik 10era bitartean, desfilean parte hartuko duten dendek txartelak emango dituzte bertan erosiz gero, eta zozketa desfilearen amaieran egingo da. Irabazleak erosketara bonuak lortuko ditu herrian erosteko.

Horrekin batera, desfile eguenean argazki lehiaketa bat ere egingo dute. Desfileari lotutako argazkirik onena bilatuko dute. Parte hartzeko bideak izango dira Twitter eta Instagram sareak *BergaraBizi* etiketarekin argazkia igota. Jasotako argazki guztien artean bozkatzeko eta onena aukeratzeko epea irekiko dute eta saria bikoitza izango da: batetik, argazki onenaren egileak bonua eskuratuko du herrian gausatzeko; bestetik, bozkatzailen artean ere diru-bonua zozketa-tuko dute.

Bihar hasiko da Bergara Hiria pilota txapelketa, 16 bikoterekin

Promes eta senior mailetako zortzina bikote ibiliko dira ekainaren 9ko finalera arte

M.B. | BERGARA

Bergara Hiriaren XIX. txapelketa abiatuko da bihar, martitzena. Promes eta senior mailetako 16 bikote, 32 pilotari, arituko dira nor baino nor gehiago. Martitzenetan jokatu dira partiduak, 19:30ean, Udal Pilotalekuan, eta ekainaren 9ko finalean, Pazkoetan, erabakiko da nortzuek jantziko duten txapela. Partiduak ikusteko ez da ordaindu behar.

Kategoria bakoitzeko zortzina bikotek hartuko dute parte -ez dago bergararrik-, eta maila handiko pilotariak ikusteko aukera egongo da. Biharko lehenengo partidurako, esaterako, Errandonea eta Martinez, Eguiguren eta Mariezkurrenaren aurka arituko dira gazteenei dagokienez, eta nagusiagoen kasuan, berriz, Urbietak eta Imazek Arrietaren



Lasarekin arituko da Ioldi. | GOIENA

eta Gorrotxategiren aurka neurtuko dituzte indarrak. Gainerako bikoteei dagokienez, senior mailan arituko diren bikoteak dira: Azpiri eta Galartza, Ioldi eta Lasa, Santxo eta Urruzola, Dario eta Peñas, Altuna eta Irusta eta,

azkenik, Atxotegi eta Bolinaga. Promes mailako bikoteei dagokienez, hauek jardungo dute: Etxeberria eta Arandia, Peña eta Sanchez, Laso eta Sarasa, Elordu eta Etxeberria, Artega eta Erasun eta Bakaikoa eta Mateo.

NIRE USTEZ

MIGUEL LAZPIUR



Krisiari bueltaka

Egoera ekonomikoa kezagarria dela kontsideratzen dut: zorpetze tasa publiko eta pribatu altua, langabezia indizea %30tik gora autonomia askotan eta gazte langabezia %50a gaindituz... atonia europar ekonomian.

Bestalde, ekonomia dinamizatzeke guztiz beharrezkoa iruditzen zait enplegua sortzea, beraz lortzeko bi bide ditugularik; inbertsio publikoa eta sektore pribatua.

Aurrenekoak estatu espainiarraren zorpetze tasa altuan du limitazioa, honek suposatzen duen interes kargarekin. Hortaz, epe motzera zail ikusten dut beraz erabiltzea.

Hau ikusirik sektore pribatua martxan jartzea geratzen zaigu. Euskadin, industria da honetarako alternatiba nagusia; izan ere, industria gaizki dagoenean Euskadi gaizki doa, eta alderantziz, industriak hobera egiten duenean Euskadin ere gauzak hobetzen dira. Hala ere, ez ditut ahaztu nahi beste sektoreak.

Industriak euskal ekonomian duen garrantzia ez dago dudatan jartzetik, eta azken egunetan prentsan publikatu denaren arabera, Frantzia eta Espainia ere jabetu dira sektore honek beraien ekonomietan duen garrantzia.

Hala, enpresak ingurune eta kondizio aproposak behar ditu irabaziak lortu, enplegua sortu eta ongizatea bultzatzeko. Laguntza ekonomiko tinkoa, esportazioen sostengua, formakuntza plan egokiak, PYMEak trakzionatuko dituzten politikak, politika fiskal aproposa, gastu sozialen partekatzea herrialde kompetitzaileekiko, euro-dolar parekotasun egokiagoa... hau bultzatu ezean, zail ikusten dut enplegua sortzea.

Jabi Erostarbe | Diseinugilea

"Mugalariak eta kontrabandoa ageri dira istorio barruan"

- ▶ 'Mattin, basoko gidaria' komikia atera du Erostarbek, formatu digitalean
- ▶ Sarean dago eta euskaraz eta ingelesez irakur daiteke, oraingoz

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Urte batzuk pasa dira Jabi Erostarbek komikiak azkenengoz egin zituenetik. *Mattin, basoko gidaria* da egin duen azkena.

Zer kontatzen du istorioak?

10-12 urte inguru dituen mutiko baten istorioa da, II. Mundu Gerran kokatua. Baserrian bizi da, arrebarekin eta gurasoekin. Aita erresistentziako kide da, ustez, eta etxetik joan da. Handik gutxira hegazkin bat erori, eta Mattinek pilotua topatu du, basoan. Alemaniarrak pilotuaren bila dabiltza eta berak baserrira eraman du. Ez daki zer egin..

Zergatik II. Mundu Gerran?

Bizitza tradizionala, kontu herrikoiak, bertako arkitektura, paisaiak... gura nituen jaso. Baina horri indarra emango zion elementu bat falta nuen, abentura. Hala, mugalari lanak egiten zituen Belgikako erizain baten heriotzaren berria irakurri nuen 2007an, eta orduan hasi nintzen istorioa irudikatzen.

Mugalarien historia dago atzean, beraz?

Mugalariak, kontrabandoa... Kometa bezalako sare asko egon dira Pirinioetan, eta hori ikusten da komikian, bai.

Non kokatzen da?

Otsagabia, Baiona eta Atarratze, esaterako, ageri dira. Modu ezberdinetan, eta toki batzuk, akaso, ez inplizituki esanda, baina hor daude.

Noiz hasi zinen istorioa egiten? Nola?

Bertako ohiturak, paisaiak edo pertsonaiak agertzea gura nuen, eta Iparraldera askotan joan gara amaztea eta biok. Baita Nafarroara ere. Maskaradak ikusi, kon-



Jabi Erostarbe, bulegoan. | O.E.

"Iparraldean eta Nafarroan egon naiz askotan, istorioak entzuten"

trabandoko istorioak entzun, batekin eta bestearekin egon...

Eskuz egin duzu dena?

Orduko automobilak eta beste-lako elementuak marrazten hasi nintzen eskuz, arkatzez. Gero eskaneatu egin nituen eta orde-

"Irudiak eskuz egin nituen lehenengo, arkatzez, eta eskaneatu gero"

nagailuan eman diet kolorea eta fondoa.

Non irakur dezakegu?

Bi euskarri digitalean dago, oraingoz: www.amazon.com eta www.kobobooks.com helbideetan, hain zuzen ere.



JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLA

Saloun, eskusoinuekin

Jose de Azpiazu musika eskolako hainbat ikasle Saloun izan dira. Elkartrukea egin dute hango ikasleekin. Aste Santuko oporrak aurretik egon ziren, apirilaren lehen asteburuan. Aitor Madina zuzendariak azaldu duenez, balorazioa oso ona da, "ikasleen jarrera txalotzekoa izan delako eta hango ekitaldiekin gustura gaudelako".

Pertsonak zaintzeko prestakuntza ikastaroa antolatu du Udalak

O.E. | OÑATI

Adinekoak eta behar bereziak dituzten pertsonak zaintzeko prestakuntza ikastaroa antolatu du Udalak. Hain zuzen, ikastaro horren helburua da laster sektore horretan lana egiteko beharko den profesional ziurtagiria eskuratzea.

Hala, langabeei nahiz sektorean diharduten langileei zuzenduta dago. Gainera, sektoreko enpresek eta sindikatuek, besteak beste, osatzen duten Tripartita Fundazioak finantzatzen duenez, partaidetza baldintzatzen du: ikastaroa egingo dutenen %60k zaintza lanean dagoeneko ari direnak izan

beharko dute eta gainontzeko %40ek, langabeak.

Enplegu Bulegoan

Zaintza eta etxeko lanak du izena ikastaroak eta hainbat esparru jorratuko dira: etxeko garbiketa, sukaldaritza, zaintzen den pertsonaren higie, elikadura, mobilizazioa eta jantzi eta arropen garbiketa, plantxa edo oinarritzko jostakuntza, besteak beste.

120 ordukoa izango da eta Arrasateko Bastida akademian emango dute, aste barruan. Enplegu Bulegotik pasa edo hara deituta eman daiteke ize-na: 943 03 77 00.

NIRE USTEZ

MIREN ZUBIA



Bihotz taupada, agindu

Euskaldunon Ama hizkuntza Euskara da, ezin hori ukatu. Hargatik, bihotz taupada bakoitzeko, nire zain oro Euskal hitz jarioan odolez gainezka darabil. Lasterka dabil hitz errenkada hori ene gorputzetik, geldi une eta atsedetik gabe. Oinetatik hasiz, nire bidea erakutsiz. Euskal hiztunen bidea. Non pausua, hitza den. Hor jarraitu du ibai eder honek ene izateari zentzua ematen. Plazerraren plaza esan ohi diote busti duen azken toki honi. Bere helduarekin erakutsiz, hori dela ene Euskarak ematen duena; gozarena. Zilborrera helduaz, nire unibertsoaren erdigunea bihurtu da hizkuntz apal hau. Ziztu bizian doa nire gorputzeko zentimetro

guztiak bere ariman bilakatuz, eta hala heldu da nire biriketara. Euskal arnas fresko eta osasuntsua eskainiaz. Arnasaldi bakoitzeko aske, libre sentiarazteko aukera emanez. Eskueta iritsi da. Euskararen munduak biratzen jarrai dezan, bultzada gogor bat emateko agindua emanez, Euskara ferekatu eta maitatu dezaten erregutuz. Hortan dabilta nire hatz puntak uneoro, kilimaz kilima, euskal irria kutsatu guran. Bide hau alferra litzateke helmuga Euskaraz hitz egitea ez balitz. Irriz, zein hitzez kutsa daiteke odol jarria. Zure bihotzak bizia ematen dizun legez, zuk bihotz taupaden odol baladen aginduak jarraitu beharko zenituzke. Zure izatearen zentzua euskara bada, ez egin uko agindu eder horri. Izan zaitez zeu ere ama hizkuntza honen zorioneko seme.

"Euskaldunon Ama hizkuntza Euskara da; ezin hori ukatu"

1.750 gramo dituen amuarraina afaltzeko

Mikel Aierbe Ugarte gazte oñatiarrak ia bi kilo pisatzen duen amuarraina arrantzatu zuen. Oñatiko uretan arrantzatu ere. Joan den apirilaren 12an izan zen. Oñatiko erreka batean zebilen arrantzan Aierbe, eta 1.750 gramoko amuarraina harrapatu zuen. Pozik ageri da argazkian, arrantzatutako piezarekin.



MIKEL AIERBE

ARETXABALETA

Kontsulta egin gura dute 5. edukiontziaaren aldekoek

Herritarrak "sentsibilizatzeko ardura" hartuko dutela iragarri dute

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Atez ateko hondakin bilteta sistema "inposatu" eta bosgarren edukiontzia bultzatzeko Udala Gobernuak "ahaleginik egin ez izana" salatu zuten Aretxabale-tako bosgarren edukiontziaaren aldeko plataformako kideek apirilaren 15ean. 60 bat herritar, asko adinekoak, elkartu ziren prentsaurrekoan, batzuk kezkatuta eta beste batzuk haserre.

Tasaren garestitzea

Aretxabaletarrek "aitzindariak" izan direla hondakin organikoa batzen esan zuten Atxabalta.5. Alde plataformako kideek, 2008az gero dagoelako herrian bosgarren edukiontzia, baina Udalak ez duela "batere bultzatu horren erabilera". Hala ere, azken hilabeteotan erabilerak "gora" egin duela diote, nahiz eta oztopo asko izan: "Emaizak nahiko hobetu dira, nahiz eta oztopoak izan. Gainera, oso edukiontzi gutxi daude, 23 bakarrik, eta berdeak 86", zioen Nerea Etxabe plataformako kideak.

Hainbat herritarrek atez atekorik ez dutela gura adierazi dutela ere esan zuten: "Horren adibide, jasotako 1.704 sinadurak". Hala ere, Udalak ez duela izan akordioetara iristeko borondate-rik: "Proposamen itxia bakarrik aurkeztu zuten, sistema mistoa deitzen diotena, baina horrek atez ateko mozorrotu bakarrik egiten du". Bosgarren edukiontzia-arekin, oster, atez atekoarekin lortzen diren "emaitza berberak"



Atxabalta.5. Alde plataformako kideak, edukiontzi marroi baten alboan. | M.A.

lor daitezkeela aipatu zuten, "behar bezala kudeatuz gero".

Bestalde, atez atekoak dagoneko bilteta sistemaren garestitzea ekarri duela aipatu zuten: "Atez atekoa ezartzeko egindako inbertsioak zabor tasaren %4ko igoera suposatu du, eta hemendik aurrerako mantentze gastuek %16 igoko dute".

Kontsulta egiteko asmoa

Udalaren erabakiaren atzetik ez dagoela irizpide teknikorik zioten, "inposaketa politikoa bakarrik"; helburua "birziklapen tasak hobetzea" balitz aspaldi hasita leudekeelako herritarren sentsibilizazioarekin.

Plataformak, berriz, sentsibilizazio kanpaina egiteko asmoa agertu du, baita kontsulta antolatze asmoa ere: "Plataformak herritarrak sentsibilizatzeko ardura hartuko du komunikazio kanpaina bat aurrera eramanda. Udalaren egitekoa da, baina erabaki politiko bategatik uko egiten dio bere betebeharrak dena betetzera", zioen Etxabek hilaren 15ean, eta gaineratu: "Plataformak hitza eman nahi die herritarrei, eta Udalari kontsulta bat antolatzeko eskaria luzatzen dio. Erantzunik ezean edo erantzuna kontrako bada, plataformak epe ertainean kontsulta antolatze asmoa hartzen du".

'Esnea eta tinta' berbaldia egingo du Uxue Alberdik bihar, martitzena

Kurtzebarri eskolako kideek gonbidatuta, Uxue Alberdi (Elgoibar, 1984) bertsolari eta idazle ezaguna izango da bihar, martitzena, eskolako liburutegian (18:00).

Esnea eta tinta izeneko berbaldia egingo die bertaratzen direnei, eskolako kideen esanetan: "Bularretik, literatura lagun izateko".

Andaluziatik Tailandiara egindako bidaiaren berri emango dute bihar

Poliki-poliki bizikletan ikus-entzunezkoa eskainiko dute Zigor Lasagabaster aretxabaletarrek eta Maria Caro granadarrak bihar, apirilak 29, Urbaltz elkartean (19:00). Andaluziatik Tailandiara bidean bizitakoaren berri emango dute bertan. Bidaia hori 2012ko irailetik 2014ko martxora bitartean bizikleta gainean egin zuten.



M.A.

Ludotekako atek zabal-zabalik

Ludotekako zerbitzuaren gaineko hausnarketa egin eta gurasoei proiektu berria aurkeztu ondoren hasi dira lehen aldaketak egiten Algaran. Hala, apirilaren 11n ate irekiak izan zituzten, eta, hemendik aurrera, hileko azken egubakoitzetan izango dituzte atek zabalik, bazkide ez direnek ere ezagutu eta ondo pasa dezaten.

ESKORIATZA

Poesia emanaldia dago etzi Keu Agirretxerekin

Mikel Etxaburu poeta izango du lagun musikari ondarrutarrak, Huheziko Fakultatean

M.A. | ESKORIATZA

Poesia eta musika emanaldia egingo dute Keu Agirretxe (Ondarroa, 1973) musikariak eta Mikel Etxaburu (Ondarroa, 1969) poetak, Tortolis ludotekak antolatuta. Etzi, eguaztena, izango da, Huheziko Fakultatean, 18:00etan; sarrera debalde da.

Hainbat estilotan murgilduta ibili ostean, pop-rocka eta

folka sentsibilitate handiarekin landu ditu musikari ondarrutar beteranoak azken urtean; horren erakusgarri da iaz udazkenean kaleratutako *Beha presioaren erdigunean* diskoa. Oraingoan, Mikel Etxaburu herrikidea lagun hartuta etorriko da Eskoriatzara. Poesia eta musika goxoa uztartuko dituzte Huheziko emanaldian.



Keu Agirretxe, Oñatin emandako kontzertu batean. | IMANOL SORIANO

Panderoa jotzen ikasteko saioak antolatu ditu Amuskak, eta izen-emate epea etzi bukatuko da

Amuska emakumeen elkartek antolatuta, panderoa jotzen irakatsiko du Adolfo Jainaga irakasleak, musika eskolan, maiatzeko astelehenean: 5, 12, 19 eta 26. Izena emateko epea zabalik dago eguaztena arte (ordainketa ere ordurako egin behar da). Argibide gehiagorako, idatzi amuska-esko@hotmail.com helbidera edo deitu 699 78 66 84 zenbakira.

NIRE USTEZ

YERA SANCHEZ



Marrazkifobia

U lergaitza egiten zait gizaratean nabaritzen dudana fobietako bat; marraztearena. Uni-bertsitateko ikasleekin, lagunekin edota etxean bertan zera gertatzen zait, zerbait marrazteko eskatzen dudanean, ezezo borobila jaso ohi dut: "Ez, ez! Nik ez dakit! Bai zera!".

Noiz utzi genion, bada, marrazkiekin gozateari? Galdera zorrotzagoa: noiz utzi genion marrazteari? Zergatik? Nagusitan, oro har, desagertuz doa umetan komunikatzeko erabili ohi den bitartekorik behinena: marrazkia. Nolabait esateko, marrazkia haurtzaroko eta haurrei bakarrik dagokien zerbait bihurtzen den neurrian,

pentsaezina gertatzen da nagusiek ere, adierazteko, marrazkietara jotzea.

Arno Stern (1924-) alemaniar adituak dioenez, marraztea gozameneko ekintza bat da (gozatzeko helburua duen beste zeinahi ekintzaren parekoa); ordea, gure gizaratean, marraztea marraztutakoa erakustearekin eta oniritzia jasotzearekin lotu dugu, hau da, marraztearen atsegina, ekintzak berak baino gehiago, besteen juzguak dakar.

Susmoa dut marrazkifobia hori ote datzan. Izan ere, besteen epaia eta norberaren beldurra bizikideak dira, ezinbestez. Behar bada, txaloen gutziak beldurra sortu digu eta segurtasun eza ekarri. Litekeena da gure marrazkiek jatorriz ez zeukaten zedarria geuk ezarri izana.

"Marraztea gozameneko ekintza bat da"



Iazko Lorabari Asteko bisita gidatua. Aurtengoa maiatzaren 12tik 17ra izango da; azoka, hilaren 17an. | GOIENA

ARAMAIO

Maiatza ekitaldiz josita dator, kirola eta kultura ekintzak protagonista direla

BTT txapelketa, Lorabari Astea, Txirritolaren ipuin lehiaketako sari banaketa eta Doke taldearen 'Galderak' obraren estreinaldia izango dira, besteak beste

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Maiatzean Aramaion ez da asperetzeko astirik egongo. Askotariko ekintzak antolatu dira, kirola eta kultura protagonista direla. Maiatzaren 9an Txirritola elkartearen ipuin lehiaketako sari banaketa ekitaldia egingo da kultura etxean. 17:00etan Zirika Zirkus antzerki taldekoak igoko dira agertokira eta 18:00etan banatuko dituzte sariak. Urtero moduan, San Martin eskolako ikasleak izango dira protagonista.


Maiatzaren 11n, bestalde, Aramaioko BTT txapelketaren zazpigarren edizioa egingo da, Euskadiko openaren barruan. Azkoagan egongo da irteera puntua eta helmuga Barajuen auzoan egongo da. Antolatzaileek nabarmendu dute ibilbidea "oso polita" dela: "Ikusleei ere gomendatzen diegu ibilbidea oinez egiteko, ederra da". Egun bat beranduago hasiko da Lorabari Astea, Aramaio Basarri Barri ekimenaren lana ezagutzera emateko. Maiatzaren 12tik 17ra izango da; hilaren 17an egingo da azoka.

Zinema eta antzerkia, bertakoa

Hilaren 14an *Aulki hutsak* dokumentala ikusteko aukera egongo da kultura etxean, 19:00etan hasita. Iñaki Peña medikua da dokumentalaren zuzendaria eta dolua du abiapuntu, hainbat testigantzekin. Maiatzaren 18an Hala Bedi irratia gainera dokumentala eskainiko dute kultura etxean, 19:00etan. Hilaren 23an, Txirritola euskara elkarteak antolatuta, *80 egunean* filma

ikusteko aukera egongo da eta antolatzaileek jakitera eman dutenez, filmeko protagonistetako bat den Mariasun Pagoaga aktore arrasatearra bertan egongo da; pelikularen ostean ikusleen galderei erantzuteko gertu egongo da Pagoaga.

Amaitzeko, hilaren 31n, Doke antzerki taldeak *Galderak* obra estreinatuko du Aramaion. Kultura etxean izango da, 22:00etan hasita.



Zirika Zirkus taldekoek girotuko dute ipuin lehiaketako sari banaketa. | NAPAE

ANTZUOLA

Zabalok eta Agirrezabalek finalurrekoa bihar

Juanita Zabalok eta Pilar Agirrezabalek bihar jokatu dute, Legazpin, puntu txapelketako finalurrekoa. Tolosaldearen aurka lehiatuko dira. Irabaziz gero, finala Donostian jokatu dute. Bikote antzuolarra Debagoieneko eta Urola Garaiko txapelduna da; bihar ilusioz jokatu dutela diote.



LANDATXOPE ELKARTEA

ELGETA

Espaloia kudeaketa adjudikatzeko baldintzak onartu ditu udalbatzak

Interesatuak zabalik dute proposamenak aurkezteko epea; ekainerako esleitu nahi dute

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Apirilaren 15ean egindako osoko bilkuran onartu zituen Elgetako udalbatzak Espaloia kafe antzokiaren kudeaketa esleitzeko pleguak. Kultura jarduera, ostalaritza zerbitzua eta Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroaren kudeaketa dira eskaintzen direnak. Oxel Erostarbe alkaterearen esanetan, espero dute ekainean esleipena erabakita edukitzea, eta maizter berriak irailan hasiko dira zerbitzua ematen.

250 euroko errenta

Lehiaketarako pleguak jasotzen du hileko errenta 250 euro izango dela, eta kontratua bi urte-

koa, bi aldiz urtebeterako luzatzeko aukerarekin.

Kudeatzaile berriak gutxienez hamar kultura ekintza antolatu beharko ditu urtean eta erdiak, gutxienez, euskaraz beharko du. Esleipendunak, bestalde, euskara lehenetsi beharko du zerbitzua emateko orduan. Esaterako, idatzizko elementuek eta kultura jardueren ondorioz sortzen direnak —kartelak, sarrerak...— euskaraz egon beharko dute. Guneak zabalik beharko du barikuetan, zapatuetan, domeketan, jaieguetan eta jai bezperetan, 10:00etatik aurrera —barikutan salbu—. Baita Udalak propio eskatutakoetan ere. Argibide gehiagorako, jo udaletxera.



Elgetako Espaloia kafe antzokia. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

Arrate jatetxearen kanpoko edertasuna, agerian

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Kanpotik eta barrutik egin diote itxura aldaketa Arrate jatetxeari. Itxura aldaketa baino gehiago, eraikina bera saneatzea izan da ugazaben helburua, eta, aurreikusitako moduan, Aste Santurako gertu zuten egin beharreko gehiena. "Barruko lantxo batzuk bakarrik falta dira", Begoña Plazaola ugazabak esan-

dako moduan. Eta horiek kanpotik ikusten ez direnez, obra -aldamioak kendu ostean agerian geratu da harrizko eraikin horren edertasuna. Izan ere, saneatze obra bera eraikinaren ezaugarri nagusiak kontuan hartuta planteatu zuten: antzinako elementuak ahalik eta gehien zaindu eta errespetatuta eta eraikinaren harriak bistaratu.



Arrate jatetxearen eraikinaren harriak bistaratu egin dituzte. | UBANE MADERA

KIROLA

Rezusta, txapeldun

- ▶ Eskuz Binakako Promozio Txapelketako finala irabazi zuen Erik Jakarekin
- ▶ Gipuzkoarrek pilota bizia aukeratu zuten eta 15-1eko partziala egin zuten hasieratik

EMAITZA

JAKA-REZUSTA

22-4

GORKA-MERINO I

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

Eskuz Binakako Promozio Txapelketako partidu borobilena finalan jokatu dutela badiote Jaka eta Rezusta txapeldunek, ezer gutxi gehiago esan daiteke. Gipuzkoarrek ondo irakurri zuten finala, eta txapelketan zehar Gorka eta Merino errioxarren kontra jokatutako bi partiduetako bigarrenen –Beasainen jokatutakoa– egindako akatsak ez errepikatzeko asmoz irten ziren Labriteko kantxara.

Miguel Merinok ez zuen finalerdia jokatu, mina zuelako eskutian. Jakak eta Rezustak garbi zuten hori zela bikote errioxarra apurtzeko eta finala irabazteko aukeretako bat. Pentsatu eta egin. Lehen tantotik pilotakada luzeak eta indartsuak bota zituzten atzeko koadroetara, helburu bikoitzarekin: Merinori min egitea eta Gorka pilota barik uztea. Eta estrategia hori betetzeko pilota aproposa aukeratu zuten: arina, bizia eta berotu ostean, bote altuak ematen zituena.



Beñat Rezusta eta Erik Jaka, garaikurrekin eta txapelekin. | ARGAZKI PRESS

Urdinak nagusi hasieratik

Epailen zozketan txanpona urdin kolorearekin irten zen unetik, Jakak eta Rezustak agindu zuten markagailuan eta jokoan. Lehen tantoa urdina izan zen, eta partiduko berdinketa bakarra (1-1), urdinek egindako huts baten lortu zuten gorriek: Jakaren dejada kanpora joan zen.

Handik aurrera, 14 tanto egin zituzten jarraian (15-1). Rezustaren pilotakada bortitzen ondorioz, segituan nekatu zen Merino, eta 15. tantoa bete orduko atsedean hartzeko hiru tarte eskatu zituen. Zabalean egindako dejada batekin egin zuen Merinok bikote gorriarendako bigarren tantoa. Pilota aldatu zuten, baina ezer gutxira-

ko balio izan zien. Beste bi tanto egin zituzten (16-4), baina ordu-rako erabakita zegoen finala gipuzkoarren alde.

12 tantoko abantaila izan arren, Jaka eta Rezusta ez ziren erlaxatu eta 22. tantoa lortu arte borrokan jarraitu zuten, harmailtan zituzten zaleen animuekin eta oihuekin.

BEÑAT REZUSTA PILOTARIA

"Joko ona egin eta irabazi ostean, pozik nago"

Bergarako pilotaria pozarren zegoen finala bukatu ostean.



GOIENA

Zorionak!

Lehia borobila jokatu duzu. Eskerrik asko. Askok jokatu dugula uste dut. Akaso ikuslearendako ez da partidu polita izan, baina Erikek eta biok txapelketako partidurik borobilena jokatu dugu gaur. Bestalde, Gorkak eta Merinok ez dute euren maila eman eta horrek asko erraztu digu gaurko garaipena.

10 hilabeteren buruan, profesional mailara eta Promozio Txapelketako txapeldunak. Ez da marka makala.

Urte ona izan da. Jakak eta biok elkarrekin debutatu genuen profesionalen Astelenan, eta aukera eman ziguten txapelketa hau elkarrekin jokatzeke. Ezin dugu gehiago eskatu.



Txapeldunak Bergararik Labritera joandako zaleekin ospatzen. | ARGAZKI PRESS

ESANAK

"Kontzentratuta eta lasai jokatu du Beñatek. Atzeko koadroetan bikain jokatu du eta berak markatu du erritmoa"



JOKIN ETXANIZ
ASPEKO HAUTATZAILEA

"Partidu itzela jokatu du Beñatek. Ikusgarria. Eta erakutsi du, ezkertiarra eta atzelaria izanda profesionalen maila ona eman dezakeela"



REYES AZKOITIA
ENTRENATZAILEA

LEHENENGO MAILA

EBA mailarako txartela lortzeko beste urrats bat eman zuten MUkoek

- Kostata, baina garaipena Iturripen geratu zen zapatuan Ardoi mendean hartuta
- Bi asteburu barru, maiatzaren 10ean, lehen sailkatuaren aurka jokatuko dute etxean

EMAITZA
MU
78-66
AVIA ZIZUR ARDOI

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Azken boladan, sailkapenean azkenengo postuetan dauden taldeekin jokatzen, behar gehiago sufritzen dute MUko mutilek, eta zapatuan ere, hala izan zen. Avia Zizur Ardoi nafarrek Iturripen bisitatu zuten, eta azken emaitza etxekoan aldekoa izan bazen ere, hirugarren laurdenaren amaierara arte asko sufritu behar izan zuten.

Avia Zizur Ardoikoak zazpi jokalarirekin etorri ziren Arrasatera eta norgehiagoka osoan zonakako defentsa erabili zuten. Hala ere, Larreategiren mutilen azeleragailua zapaldu zuten hirugarren laurdenean eta Ceciagaren 21 puntuekin eta Kintanaren 15 puntuekin, horietatik gehienak hirugarren laurdenean, garaipena lortu zuten; horrela lehenengo postuagatik borrokatzeko aukerak bere horretan mantenduz. Hala ere, partidu zaila izan zen.



Imanol Ceciaga jokoa antolatzen. | JOSETXO ARANTZABAL

Zonakako defentsak, min

Lehenengo bi laurdenetako partzialak galdu zituzten arrasatearrek; lehenengoa, 17-19; eta 19-22, bigarrena. Ikusleen artean, arduraz zen nagusi taldeak ez zuelako

urtean zehar erakutsitako segurtasuna erakusten. Gainera, Ardoi-ko Olzak, saski azpian min handia egin zien Larreategiren mutilei; 18 puntu lortu zituzten, 13 lehenengo zatian.

Hiruko maratik irabazten

Aldagelatik bueltan, hiruko maratik arazo handiak izan zituzten; lehenengo bost hirukoak huts egin zituzten (39-47). Lau minuturen faltan baina, Ceciagak eta,

batez ere, Kintanak eskumuturra berotu zuen eta taldeari beharrezko bultzada eman zion. Azken laurdena kontrolpean mantentzea lortu zuten eta garaipena, berriz ere, etxean geratu zen.

SASKIBALOA

Aloña Mendikoak pozik, saskibaloia egunean jaso zuten babesagatik

- Zapatuan bigarren urtez saskibaloia eguna ospatu zuten Foruen plazan
- Pazko Astean saskibaloia kanpusa ere antolatu zuten Aloña Mendikoek

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Saskibaloia eguna ospatu zuten zapatuan Oñatin Aloña Mendikoek. Bigarren urtea izan da, eta pixkanaka oñatiarren artean saskibaloia zaletasuna gora doala argi geratu zen.

Goizez Foruen plazan jarri zituzten bi saskietan, eta arratsaldean Zubikoako kantxa urdinean, neska-mutikoak saskibaloian jokatzen ibili ziren gustura asko. Goizean, hiruko txapelketa egin zuten gazteek, eta batek baino gehiagok detaile politak utzi zituzten inprobisaturiko kantxan.

Eguerdi partean gainera, Foruen plazara gerturatu zirenetzat saheskiak prestatu zituzten Natrako jokalariek. Horrez gain, laguntzaileek emandako otarrak

zozketatu zituzten; guztia saskibaloia kalera atera eta gozatzeko.

Saskibaloia kanpusa

Hala ere, zapatukoa, saskibaloia protagonista izan duen asteari amaiera paregabea emateko aitzakia izan zen. Eguaztenean hasi eta egubakoitzera arte, saskibaloia kanpusa egin zuten Aloña Mendikoek. Lehenengo egunean kaskar hasi bazen ere, bost pertsona agertu ziren; hurrengo egunetan neska-mutiko gehiago animatu ziren.

Guztira 40tik gora, saskibaloia eskolan dabilzan 30 bat eta beste dozena bat gaztek saskibaloiaz gozatu zuten, besteak beste, Asier De La Iglesia, Natrako jokalaria, monitorea zutelana.



De la Iglesia kanpusean. | J.D.



Saskibaloia egunean, Foruen plazan neska-mutikoak. | JAGOBA DOMINGO



Sahieskiak prestatzen ibili zen taldea. | J.D.

EUSKADIKO TXAPELKETARAKO IGOERA FASEA

Partidu txarra jokatu, igoera faseko lehen garaipena Aloña Mendik

Zapatuko garaipenak, Euskadiko txapelketarako sailkatzeko aukerak bizirik mantentzen ditu

EMAITZA

IZARRAITZ TABERNA ALOÑA MENDI

32-29

EIBARKO HARITZA ESKOLA

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Hirugarrenean lortu zuten garaipena Rafa Zulueta mutilek. Eibarko Haritza eskola taldeak bisitatu zuen zapatu arratsaldean Zubikoa, eta etxekoek Euskadiko txapelketarako igoera faseko lehenengo garaipena lortu zuten. Aurreko bi norgehiagokak galdu ostean, hil ala biziko partidua zen zapatukoa, eta entrenatzailea egindako partiduarekin haserre amaitu bazuen ere, garaipena Zubikoan geratu zen.

Etxekoek lehenengo minutuak onak izan ziren; defentsan gogor jokatu eta kontraerasoak ederto aprobeztatu. Eraso estatikoan ere nahiko fin ibili ziren, eta pazientzia jokaldiak eginez, gol politak egin zituzten. Lehenengo hamabost minutuak pasatu ostean, bost goleko alde zegoen markagailuan (10-5), baina Eibarko entrenatzaileak hutsarte eskatu ostean, indartsuago kantxaratu ziren bisitariak.

Hala ere, Izarratz Tabernako jokalariek berriz ere estutu zuten eta kontraerasoan gol errazak lortuz, markagailuan alde mantendu zuten beste minutu batzuek. Atsedendira heltzeko zortzi minutu falta zirenean, marka-

gailuan 15-9ko emaitza zegoen; baina etxekoek hutsegiteei eta kontzentrazio faltari esker, bisitariak 3-6ko partziala lortu zuten.

Eibarkoek defentsa aurreratu zuten eta min nahikotxo egin zieten Zulueta mutilei. Horrela, atsedendira 18-15eko emaitzarekin joan ziren.

Defentsan galduta

Bigarren zatia ez zen askoz ere hobe izan. Zulueta arabera, defentsan oso ahul jokatu zuten, eta indarra eta kontzentrazioa aldagelan utzi zituzten jokalariek. Bi gol sartu zituzten lehenengo erasoetan eta horrela bost goleko alde lortu zuten.

Defentsako lana txarra zenez, ez zuten kontraerasoan irteteko aukera askorik izan, oñatiarrek ez zuten euren jokoa egin. Bigarren zatian zehar, hiru edo bost goleko abantaila izan zuten markagailuan, baina sentazioak ez ziren onak izan; partidua ez zuten kontrolpean izan.

Eibarko Haritza Eskolako hamar jokalarirekin etorri ziren Oñatira, eta azken minutuetan bisitarien nekea oñatiarren lagun bihurtu zen.

Txarto jokatu, baina irabazi

Partidu txarra jokatu arren, garaipena etxean geratu zen (32-29), eta horrek oraindik ere igoera fasean bizirik mantentzea suposatzen du. Sailkapenean laugarren postuan daude oñatiarrek bi punturekin, beste bi talderekin berdinduta



Izarratz Tabernakoak erasoan. | JOSETXO ARANTZABAL

RAFA ZULUETA | ENTRENATZAILEA

"Taldeko lehenengo lau sailkatuek oraindik igotzeko aukerak dituzte"

Partidua irabazi arren, haserre zegoen entrenatzailea oñatiarrek egindako lanarekin. Hala ere, garaipenak borrokatzen jarraitzeko aukera ematen die.

Nola planteatzen dituzue hurrengo bi norgehiagokak?

Hurrengo ordiziarren aurka izango da, gogorra izango da, igoera fasean hirutik hiru irabazi dituzte. Hala ere, aurten eruen aurka bi aldiz jokatu dugu eta bietan estu ibili gara bi taldeak, etxean bi goleko aldeagatik irabazi genuen eta han bigatik galdu genuen. Bi taldeak ondo ezagu-



GOIENA

politak egin dugu, orain azken norgehiagokak disfrutatzea eta ahalik eta lan onena egitea geratzen zaigu.

tzen dugu elkar. Azkena, Gaztelueta taldearen aurka izango da. Bizkaitarrekin sailkapenean berdinduta gaude.

Beraz helburua lehenengo lauren artean geratzea da.

Hori lortuz gero, kanporaketak jokatzeo aukera izango genuen. Momentuan, lehenengo bi taldeak sei punturekin daude, eta hurrengo hirurak bi punturekin.

Denboraldiaren balorazio ona orduan ezta?

Bai, gaurko partiduarekin ez nago batere pozik baina denboraldiarekin bai. Urte asko pasatu dira azkenengo igoera fasea jokatu zenetik, eta pozik egotekoa dela uste dut. Denboraldiaren balorazioa ondu da, eta ahalik eta lan onena egitea geratzen zaigu.

EUSKADIKO TXAPELKETA

Soraluze BKEk ligako azken partidua irabazi zuen

2014ko lehen garaipena lortu zuten bergarrek txapelketako azken norgehiagokan

EMAITZA

SORALUZE BKE

26-25

TALDEA

gaur. Urtarriletik lau puntu irabazi ditugu: bi berdinketa eta gaurko garaipena", esan zigun Josetxo Muniategik.

Eskerrak bergarrek etxeko lanak ondo egin zituzten Gabonak arte: 19 puntu lortu zituzten.

Minutu onak eta akats larriak

Taldearen egoera eta jokoa goitik behera aldatu dute lesioek eta jokalariek batzuek taldea utzi behar izateak. Arazo horiei irtenbidea emateko gazte mailako jokalariek



Bergarako jokalaria hegaletik jaurtiketa egiten. | JAGOBA DOMINGO

erabili dituzte, eta "horrek eragina izan du jokoan", zioen Muniategik.

Atzo ere sufritu egin zuten Labegarrietan. Minutu askoan joko ona egin zuten eta marka-

gailuan agindu zuten: laupabost goleko errenta izan zuten tarte askoan. Baina, beste batzuetan, akats larriak egin zituzten -baloiak galdu, erasoan huts egin, defentsan zuloak utzi...-, eta horrek

guztiorrek sufritu arazi zien. Dena den, azken minutuetara hiru goleko errentarekin heldu ziren: 26-23.

Lehia bergararren eskuetan zegoen, baina une hartan heldu ziren akatsak berriro. Ereintzak bi gol sartu zituzten, eta azken segundotan presio handia egin zuen kantxan. Ez zuten berdintzeko aukerarik izan.

Hausnarketarako unea

Liga txapelketa bukatuta, atsedean hartzeko unea heldu zaie jokalariei eta entrenatzaileari. Egindako akatsak zuzentzeko unea da. "Lesioak izan ditugu, bai. Baina ni oso kritikoa naiz egin dudana lanarekin, eta ez naiz irtenbideak topatzeko gai izan. Genituen jokalariek askoz gehiago egin genezakeela uste dut", esan zigun entrenatzaileak.

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

Euskadiko txapelketa garaipenarekin bukatu zuen Soraluze BKEk. Ereintzaren kontra sufritu irabazi zuten. "Bitxia da, baina 2014ko lehen garaipena lortu dugu



Txirrindulariak Agorrosingo gunean. | JAGOBA DOMINGO



Txirrindulari talde bat martxa amaitzean. | J.D.

TXIRRINDULARITZA

Sei mendate Aspanogiren alde

231 txirrindularik hartu zuten parte atzo Lokatzak antolaturiko Aspanogi 6+3 martxa zikloturistan



Txirrindulariak atsedean hartzen. | J.D.

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Zeruari begira hasi zuten atzo Aspanogi 6+3 martxa zikloturista. Izan ere, txirrindulari eta antolatzaileak eguraldiaren beldur zeudela aitortu zuten. Hala ere, errepidean pasatu zituzten lau ordu inguruak ederki gozatu zituzten lagun giroan; sufrimenduak ere bere tartetxoa izan bazuen ere.

Denera, 231 txirrindulari irten ziren Bergarako Agorrosin kiroldegitik atzo goizean Lokatza txirrindulari eskolak antolaturiko martxa zikloturistan. Kirola egiteaz gain baina, bazuen beste helburu bat atzoko martxak; Aspanogi elkarteak, Gipuzkoako haur minbizidunen

gurasoen elkarteak ezagutzera ematea, alegia.

Sei mendate, 105 kilometro

Kirolariek 105 kilometrotan, sei mendate igo zituzten hiru bailaran barrena. Agorrosin kirolgunetik atera ziren txirrindulariak 09:00etan eta Oñatirako bidea hartu zuten. Pedalka Udana, Aztria, Barbari, Liernia, Mandubia eta Elosuko gainak bizikleta gainean pasa ondoren, 13:00ak aurretik ziren lehenengoak bueltan Agorrosin.

Nekeari aurre egiteko mokadutxoa eskuetan zutela, gustura amaitu zuten martxa bai kirolari baita antolatzaileek ere, nola-bait minbizari aurre egiten.



Aspanogiko maillota. | J.D.

JOSE LUIS FERNANDEZ
ASPANOGIKO LEHENDAKARIA

"Datorren urtean ere hemen egotea espero dugu"

Pozik zegoen martxa amaituta Aspanogiko lehendakaria.



Zelan joanda gaurko eguna?

Egia esan oso ondo. Goizean beldurrez esnatu gara euria zegoelako iragarrita, baina azkenean ondo. Hotz pixka bat egin du jaitsieretan baina hori ere eskertzekoa da.

Aurten txirrindulari kopuru polita elkartu da.

Pasa den urtean baino txirrindulari gehiago animatu dira eta eskertzekoa da.

Dagoeneko ohitura bihurtzeko bidean da martxa.

Bueno, Lokatzak antolatzen du martxa; gu goizean etortzen gara eta anoa puntuetan laguntzen dugu. Lan gogorrena Lokatzakoak egiten dute, eta eskertzekoa da, azken finean Aspanogi ezagutzera emateko aukera ona da. Datorren urtean ere, hemen bueltan egotea espero dugu.



IKER LAZPIUR
ARRASATE

"Martxa hauek, lagun artean egin ohi dira, eta eguraldia lagun, gustura ibili naiz. Aurreko urtean etorri nintzen, baina aurten nire burua hobeto ikusi dut. Gainera Aspanogiri laguntzea pozgarria da".



IBAN GARTZIA
ARETXABALETA

"Ondo joan da gaurko martxa. Mendateak nahiko azkar igo ditugu eta Elosukoa lasaiago igo dugu. Txirrindulari gehienak ingurukoak izan dira, eta giro paregabea izan dugu".



IMANOL GARMENDIA ETA GAIZKA ASENSIO
ANTZUOLA

"Ibilbide gogorra izan da, baina polita aldi berean. Eguraldiak asko lagundu du egia esan, egun zoragarria egin du bizikletan ibiltzeko. Mendateak oso luzeak ez ziren arren, sei izan dira eta... Elosukoa, behintat, lasai igo dugu! Hirugarren urtez parte hartu dugu eta dagoeneko ibilbidea nahiko ondo ezagutzen dugu. Garrantzitsuena baina, Aspanogi elkarteari laguntzea izan da".

KULTURA

Memoria historikoa bizirik mantentzeko

- ▶ Bigarren urtez errekreazioa egin zuten Intxortan
- ▶ Berrikuntzekin asmatu egin dute antolatzaileek

MIREIA BIKUÑA | ELGETA

"Frankismoaren biktimekin ez da justiziarik egin. Argentina-raino joan gara justizia eske. Eskaerak aurrera egin dezan, herritarren inplikazioa beharrezkoa da. EAEEn, Nafarroan bezala, euskal memoria historikoaren legea beharrezkoa dugu". Berba horiekin laburbildu zuen Intxorta 1937 Elkarteak kide Juan Ramon Garaik, atzo Intxortan bertan egindako errekreazioa. 120 bat herritarrek parte hartu zuten berriak batzuk eta iaz parte hartutakoak beste batzuk -1936ko urrian eta 1937 apirilean Intxortako frontean izandako gertaerak antzeztan. Orduan, milizianoek eta gudariak tropa frankistak geldiarazi zituzten, eta atzo ere bai.

20 minutuko errekreazioa

Elgetako plazatik oinez abiatu ziren milizianoak eta gudariak, eta ordezkari politikoak. Intxortarako bidea txistularien laguntzarekin egin zuten. Han, lubakietan lekua hartu eta Asentzio aldetik heltzeaz zeuden frankisten eta falangisten zain geratu ziren. Euren inguruan, herritar asko. Gazte eta heldu. Guztiak,

argazki kamerak eskutan, Intxortako Atearen aurreko zelaian zer gertatuko zain. Izan ere, hori izan zen atzoko beste berrikuntzetako bat: errekreazioa egiteko leku gehiago izan zuten.

20 minutu inguruko errekreazioa izan zen. Milizianoen eta gudarien garaipenarekin, txalo zaparrada jaso zuten parte-hartzaile guztiak.

Lore-eskaintza

Errekreazioa bukatuta parte-hartzaileek eta ordezkari politikoek Elgetarako bidea hartu zuten berriro ere *Frankismoaren zigorgabetasunari, tolerantziarik ez!* pankartaren atzean.

Geldialdia egin zuten San Salvador ermitan. Han dagoen monolitoan, arrosa bana utzi zuten ordezkari politikoek, herritarrek eta senitartekoek. Lore-eskaintzaren ostean, ekitaldia amaitutzat eman zuten.

Memoria historikoa

Elgetako Udalak eta Intxorta 1937 Elkarteak elkarrekin antolatutako errekreazioaren helburu nagusia memoria historikoa berreskuratzea eta bizirik mantentzea da. Errekreazioan parte hartu zuten protagonista heldu askok esandako moduan "gazteei gerraren krudeltasuna ezagutarazteko" modua da.

Iritzi berekoak ziren errekreazioa ikusten egon ziren ordezkari politikoak. Memoria historikoa ez ahaztearen beharra azpimarratu zuten, behin eta berri. Debagoieneko Udaletako hainbat ordezkari, eta Foru Aldundiko eta Eusko Jaurilaritzako ordezkariak egon ziren; besteak beste, Oxel Erostarbe, Inazio Azkarragaurizar, Jaione Isazelaia, Josu Erkoreka, Larraitz Ugarte, Joseba Egibar, Aintzane Ezenarro, Isabel Salud eta Maria Eugenia Arrizabalaga.

DATUA

120

PARTE-HARTZAILE

Horiek izan ziren Intxortako errekreazioan parte hartu zuten herritarrek. Batzuk elgetarrak eta beste batzuk inguruko herrietakoak.



Errekreazioan parte hartu zuten herritarrek eta txistulariak talde argazkia egiteko elkartu



Andazainak hildakoak eta zauritutakoak jasotzen. | JOSETXO ARANTZABAL



JUAN MARI ALBERDI
PARTE-HARTZAILEA

"Oso ondo joan da eguraldi ederrarekin. Zapatuko entsegua euriarekin egin genuen, eta ez ginen gustura geratu. Halako ekitaldiak beharrezkoak dira gazteek gerraren ondorioak ezagutu ditzaten".



RITXI ZARATE
PARTE-HARTZAILEA

"Ugao-Miravallesetik etorri gara Intxortako lagunekin parte hartzera. Iazkoarekin alderatuta, azpimarratuko nuke herritarren inplikazioa eta aurten, arma gehiago izan ditugula. Berrikuntzak ondo egon dira".



JULIA MONJE
ANTOLATZAILEA

"Antolatzaile taldekoak oso pozik gaude emaitzarekin eta ikusleak ere hunkituta sumatu ditugu. Orain, balorazio sakonagoa egiteko unea da, eta hurrengo urtean zer egin erabakitzeko. Ikusiko dugu hirugarren errekreaziorik dagoen".



J. ALBERTO ETXEZARRAGA
PARTE-HARTZAILEA

"Ikusgarria izan da. Zelai osoa hartu dugu aurten eta oso gustura geratu naiz. Errekreazio hunkigarria izan da. Beti dago hobetzeko zozter, eta gaur ere ikusi ditut akatsak. Horiek hobetu beharko ditugu".



AMAGIOIA IRAZABAL
PARTE-HARTZAILEA

"Pozik. Iazkoaren alderatuta hobeto egin dugula esango nuke. Aurten, iaz baino elgetar gutxiagok parte hartu dugu, eta pena izan da. Iaz erreketea izan nintzen, aurten ere bai, eta hirugarren aldiz egiten bada, erreketea izango naiz".



ziren amaieran. | JOSETXO ARANTZABAL



Milizianoak eta gudariak erasoari aurre egiteko gertu eta ikusleak adi-adi. | JOSETXO ARANTZABAL



Frankistak milizianoen kontra egiten, bandera espainolarekin. | JOSETXO ARANTZABAL



Milizianoak gertu tiro egiten hasteko. | JOSETXO ARANTZABAL



Ordezkeri politikoak eta herritarrek lore-eskaintzan. | JOSETXO ARANTZABAL



Azokako postuetako bat. | J. A.



OXEL EROSTARBE
ELGETAKO ALKATEA

"Gustura gaude, antolatzaileok, herritarrek eta parte-hartzaileak. Gaurko errekreazioa beste giro baten egin arren, erakusten du 1937ko apirilean zer gertatu zen Intxortan. Berrikuntzek ondo funtzionatu dute".



LARRAITX UGARTE
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

"Oso interesgarria iruditu zait. Herri hau nondik datorren eta zer bizi izan duen gogora ekartzeko ekitaldia izan da. Bestalde, garbi dago horrenbeste urte pasa ostean, gertaera haiek zer nolako inpunitatea duten oraindik".



JOSU ERKOREKA
EUSKO JAURLARITZA

"Aurten ere ez dut hutsik egin. Intxortako errekreazioak beste dimentsio bat ematen dio memoria historikoari. Halako ekitaldiak beharrezkoak dira orduan gertatu zena gogora ekartzeko".



Txistulariak Intxortarako bidean. | JOSETXO ARANTZABAL



Musika eta olerkiekin batera, Ainhoa Alberdi eta Iraia Elias aktoreen lanak gorpuzten du ikuskizuna. | IMANOL GALLEGO

Gabriel Aresti pertsona eta haren lana batzen dituen ikuskizun poliedrikoa

Artista ezagunek poetaren omenez egindako lanak txalo ugari jaso zituen

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Olerkariak utzitako arrastotik abiatzen da *Gabrielen lekua* sentikaria. Hitzak sentimendu bilakatzen dira, musikak jantzi egiten ditu eta antzerkiak aldiz gorpuztu. Ikuskizun bat baino, elkarlan bat dela esan daiteke, parte hartzen duten artisten lanak oso ezberdinak diren arren, lan bakar bat sortzen dute-eta.

Taula gainean kaxa beltz bat soilik, sentipen eta sentsazioz bete beharreko kaxa huts bat, eta bere barruan, Rafa Rueda musikaria, Andoni Egaña bertsolaria, Arestiren *ahotsa* den Oier Guillan eta Ainhoa Alberdi eta Iraia Elias aktoreak. Ikuskizuna definitzea zaila da, hura

barneratzea eta gozatzea aldiz erraza. Lanaren alderdi bakoitza autonomoa dela iruditu arren, guztiak dauka garrantzia, eta guzti horrek gogora dakar Gabriel Arestiren obra.

Poetaren istorioa

Ikuskizunak badu hari bat, eta hori Alberdik eta Eliasek antzetzen duten istorioa da. Antzerki bat da zatitxotan banatuta, eta bertan Eme liburuzainaren eta Lur poetaren arteko talka kontatzen du. Lezioen bitartez, liburuzainak jarraitu beharreko bidea erakutsiko dio poeta izan nahi duen gazteari, benetako idazle maisu bat izateko bidea. Elkarri laguntzen dieten arren, pertsonaia

kontrajarriak dira, bata ameslaria eta bestea lurtrarragoa. On Kixote eta Santxorekin gertatzen den moduan, zeharo ezberdinak diren bi pertsonaia hauek bidaia zirraragarri bat egingo dute. Kasu honetan baina, abentura bila irten beharrean, barreneko bidaia bat izango da, Lur gazteak, inspirazioa lortzeko, amets eta sentimenduen lurraldera egin beharko du salto.

Jabi Barandiaran zuzendari moduan izan duen obra honetan inprobisazioa eta gidoia tartekatzen dira, gaurkotasuna eta Arestiren idatzi intimistak tartekatuz. Egaña azken bertsoan musu batekin agurtu zen, "Bergaran besarkadak arriskutsuak direlako".

Uxue Alberdi: "Liburuak beti egongo dira hor"

Idazle elgoibarrak 9 istoriorekin sortutako 'Euli-Giro' eleberria aurkeztu zuen gaztetxean

I.G. | BERGARA

Idazlea, ama, bertsolaria, emakumea, feminista, pertsona... hiztegia bezain anitza den bizi-moduan duen Uxue Alberdik emakumea protagonista duen bederatzu ipuinez sortutako *Euli-Giro* eleberria aurkeztu zuen egubakoitzean Bergarako kartzela zaharrean.

Bere lana sailkatzea ez da erraza, eta literatura feminista entzutean "ez ditut etiketak gustuko", erantzuten du Alberdik. Dena den, idazleak onartzen du, feminista denez, bere lanetan ikuspuntu hori igartzen dela. Kartzela zaharreko liburutegiarekin gertatzen den moduan, hormak eraiki beharrean bere hitzak zabaltzeko nahi ditu.

Angiolilloren liburutegia

23. aurkezpena izan den honekin Angiolillo liburutegiak bere atea itxi baino, ziklo berri bati

ekingo dio. Ibilbide oparoa izan du ekimenak eta Aser Polvorosa buru, zirkuitu komertziale-tatik urrun geratzen diren idazle eta argitalpenak ekarri ditu liburutegiak gaztetxera. "Kartzela zaharrean askatasuna sartu nahi izan dugu", aipatu du Polvorosak.

Bera ez da nekatu, baina bere begiko proiektua izan den hau beste esku batzuetara pasateko ordua dela uste du. "Gurea eraikin honetan egin den laugarren liburutegia da, baina ziur nago bosgarren bat ere egongo dela", azaldu du liburuzain berezi honek.

Hurrengo proiektua gorpuzten den bitartean, liburutegiak ez ditu bere atea guztiz itxiko. Angiolilloren ziegan dauden liburuek jendearen esku jarraituko dute, hurrengo askapen-haize edo proiektu berria noiz iritsiko zain.



Uxue Alberdik solasaldi polita eskaini zuen. | IMANOL GALLEGO



Ganbara abesbatzako kideak pozik lortutako emaitza bikainarekin. | JOXE AGIRRE

Ganbara abesbatzak plenoa egin du Ejeako lehiaketan

I.G. | OÑATI

Folklore eta polifonia mailan lehen postua lortu du Oñatiko Ganbara abesbatzak asteburuan Ejeako lehiaketan: "Bi maila horietako puntuen baturak ematen du sari nagusia", esan du Aitor Biain abesbatzako zuzendariak. Hala,

Ejeako kantu lehiaketako sari guztiak eskuratu dituzte. Ejeako kantu lehiaketa urteko hitzordu garrantzitsu horietako bat da, eta aurtengoa are bereziagoa izan da. Bertan lehiatzen ziren taldeek, aurreko urtean sari garrantzitsu bat lortutako taldeak zirelako.

"Pozik" egindako lanarekin

"Folklore mailan ongi aritu ginen, baina polifonian bikain egin dugu", azaldu du zuzendariak oso pozik. Hala ere, epaileak sailkapenaren berri eman arte, kantariak urduri zeuden: "Lehiaketaren maila izugarria izan da, eta entzuleen artean askotariko iritziak zeuden", argitu du Biainek.

Ospakizunak motza beharko du izan, uztailean Ganbarako kideak Torrevejiako Habanera lehiaketara joango dira-eta.



JOKIN BEREZIARTUA

Bertso saioa Uribetxebarriaren alde

Josu Uribetxebarria presoari elkartasuna eta laguntasuna erakutsi, eta bizi duen egoera salatzen, bertso saioa egin zuten egubakoitz arratsaldean, presoaren etxe parean, Arrasaten. Balkoian zegoela, Miren Amuriza, Jokin Labaien, Ane Zuazubizkar eta Maider Arregiren bertsoez gozatzeko aukera izan zuen Arrasateko presoak. Saioak erdia jo zuenean, Ertzaintza agertu zen eta tentsio uneak bizi izan ziren.

Zeu irabazle

Goiena Klubeko txartela erakutsi eta aprobeztatu abantailak. Abantailak ikusteko: goienakluba.com

ALZU

ALZU, S.L Ehiza eta arrantza
Arantzazuko Ama, 2 | Oñati
Arropetan %10eko beherapena.

ARGIA

ARGIA Aldizkaria
www.argia.com
%25eko deskontua harpidetzan. (Bazkide berrientzat soilik).

ARRIKRUTZ

oñatiko obak

ARRIKRUTZ Kobak
Araotz Auzoa | Oñati
Sarreran %10eko deskontua (topea bost pertsona).

caravanas

oñate

CARAVANAS OÑATE
Galdaragintza. Bizikletak
Otaui Zuhaitzia, 25 | Oñati
50€-ko erosketa egiteagatik, %10eko deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan. (ez du balio beste promoziotarako).

Esko Sport

ESKO SPORT Kirol denda
Intxaurtxueta 5 | Eskoriatza
Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.



ESTACION SERVICIO ARRASATE
Gasolindegia
San Andres 7 | Arrasate
% 2ko gasolindegian erregaia erosita.
% 2ko dendako produktuetan.



EUREKA ZIENTZIA MUSEOA Aisia
Mikeletegi 43-45 | Donostia
Sarrera bat erosita eta kupoi+ Goiena Klubeko txartela erakutsita, sarrera bat doan.



GAES Entzumen zentroa
Otalora 18 | Arrasate
Zurradero 10 | Bergara
%10eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)



GAHIR Fisioterapia / Osteopatia
Aranburuzabala 6 behe | Eskoriatza
%50eko deskontua lehenengo kontsultan.



GUZTIZ EDER Estetika zentroa
Kalebarria 29 | Oñati
%5eko deskontua argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan (bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik).
%10eko deskontua gorputz osoan txokolaterekin egindako estalduran eta masajeetan.



KUTTUNA Estetika
Aranburuzabala 19, behe | Eskoriatza
%5eko deskontua zerbitzu guztietan (beste promozio batzuk izan ezik).



LASTAI
Koltxoak eta umeentzako artikuluak
Arkatza 1, 49 Pab | Gasteiz
%5eko deskontu gehigarria helduentzako atse-den arloan.
%5eko deskontua haur kotxe eta automobileren segurtasun-aulkietan.
%5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobileren segurtasun-aulkietarako denboraldiko ehun-gaietan.
%10eko deskontua denboraldiko hau-arropan. (Beharpenetan eta eskaintza berezietan izan ezik).



LILURA EDERTZE INSTITUTUA
Estetika zentroa
Bidekurutzeta 7 | Bergara
%15a laser depilazioan: hanka osoa + izterrendoa (besapekoak opari).
%20eko deskontua elikagai intolerantzia proban.
%10eko deskontua mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
%10eko deskontua fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.
Bazkidearentzat eta lagunarentzat



MAGDALENA Gasolindegia
Santxolopetegi auzoa | Oñati
% 2ko deskontua gasolindegian erregaia erosita.



MULTIÓPTICAS Optika
Juan Carlos Guerra, 1 behe | Arrasate
Ibargarai, 16 | Bergara
%15eko deskontua (deskontua ez da aplikagarria promozioetan ezta segurtasun betaurrekoetan).



NAREN
Fisioterapia eta osteopatia zentroa
Belorrieta 5 behe | Aretxabaleta
%15eko zerbitzu guztietan (Errehabilitazioan izan ezik).



NINIKA Loradenda
Ramon Maria Lili, 8 | Bergara
%10eko deskontua artikulu guztietan.



OÑATI GARAJEA
Autoen garaje. Konponketak
Goribar Auzoa 9 | Oñati
Oñati %5eko beherapena egiten diren konponketetan.



TXURI URDIN Itzotz jauregia
Anoeta Ibilbidea 24 | Donostia
% 20eko deskontua zapatu eta domekatan (ez bada zubia edo oporraldia).
% 10eko deskontua zubi eta oporraldietan.



ALDAPE Jatetxea
Iturriotz kalea 41 Arrasate
Tel.: 943 79 63 69
Astelehenetik ostiralera eguneko menuan (bazkaria) kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).
Astebukaerako menuan (bazkaria edo afaria) kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).



SARA MERENDERUE Jatetxea
Meatzerreka auzoa 19,
Kanpazar bidean, 3km-tara - Arrasate
Tel.: 943 77 15 86
Astelehenetik igandera, eguneko menuarekin, kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).
Astebukaerako afarietan, eguneko menuarekin, kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).

GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:

Goiena papera: Astelehenetan ere etxean.

Deskontuak: Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.

Urteko kuota: 50 €. | 943 25 05 05
kluba@goiena.com | goienakluba.com



goienakluba™
Euskara irabazle, denok irabazle!

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Oñati. Kurtzebelean etxebizitzaz jantzia ematen da errentan. Hiru logela eta bi bainugela. Interesatuok deitu telefono honetara: 615 73 29 83

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan, bi logelakoa. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 603 14 59 17

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan, merke. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 648 46 90 51

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan, prezio ekonomikoan. Interesatuok deitu telefono honetara: 629 80 77 73

Arrasate. Pertsona bakarrendako etxebizitza behar dut errentan. Mutil arduratsua naiz. Interesatuok deitu telefono honetara: 722 45 33 59

Bergara. Gutxienez bi logela etxebizitza hartuko nuke errentan. Mila esker. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 602 03 33 56

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan erdiguinean. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 629 80 77 73

Bergara. Erdiguinean dagoen etxebizitza bat osatzeko bi gela daukat libre eta jende bila nabil. Hilean 270 euro dira pertsonako, gastuak barne. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 672 68 57 77

Bergara. Logela ematen da errentan, sukaldaria erabiltzeko aukerarekin eta internetarekin. Leku lasaia da. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 637 18 07 23

Bergara. Logela ematen da errentan, sukaldaria eta komuna erabiltzaile. Leku lasaia da. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 637 18 07 23

Oñati. Logela alokatzen da duplex berri batean, plazatik oso gertu. Wifi konexioarekin. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 656 74 29 49

Oñati. Etxebizitza osatzeko pertsona bat beharko genukeen bi langile gara. Interesaturik egonez gero, deitu mesedez 18:00etatik aurrera zerbaki honetara. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 653 74 87 51

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume euskalduna plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 699 54 17 27

Arrasate. Emakume gertu etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko zein ospitalean gauak egiteko. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

Arrasate. Neska euskalduna bulegoak, elkarteak, tabernak eta abar garbitzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 686 27 45 81

Bergara edo Arrasate. Emakume arduratsua lanerako gertu dendarri bezala, etxeko lanetan, eskailerak edo elkarteak garbitzen, edobaita pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ere. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 625 86 99 51

Bergara, Arrasate edo Oñati. Erizain laguntzaile ikasketak dituen mutila nagusiak zaintzeko gertu. San Juande Diosen lan egindakoa eta esperientzia handikoa. 943 78 62 19 edo 639 66 57 88

Bergara. 49 urteko emakumea lanerako gertu. 688 89 82 39

Bergara. Adin ertaineko emakumea, informeak dituena, goizetan umeak eta nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. 610 34 97 88

Bergara. Emakumea gertu adinekoak zaintzeko. Bertakoa. 696 84 19 51 edo 943 53 29 18

Bergara. Goizetan eta eguerdian umeak zainduko nituzke. Psikopedagogia eta haur hezikuntza ikasketak ditut. 669 64 64 27

Bergara. Prest adineko pertsonak edo umeak zaintzeko. Eskarmendua daukat. Tel.: 665 75 41 32

Debagoiena. 24 urteko neska eskaintzen da nagusi eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta tabernan lan egiteko. Laguntzaile graduatua daukat eta eskarmentu handia nagusiak zaintzen. Gidabaimena eta autoa daukat. 617 20 59 43

Debagoiena. Arrasateko Eguzkiñe naiz eta etxeko gerbitzetak egiateko gertu nago. Kantzautza, denborarik gabe edo gaixo bazaude, nik lagunduko dizut. 650 06 01 35

Debagoiena. Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko 13:00etatik aurrera. 637 18 07 23

Debagoiena. Edozein lanerako prest dagoen mutil bat naiz. Telefonoa: 610 12 49 64

Debagoiena. Emakume arduratsua, informekin, garbiketara lanerako gertu. 696 27 25 34

Debagoiena. Emakume euskalduna gertu interna moduan lan egiteko. Klinika laguntzaile tituloduna. Autoa daukat. 688 82 69 68

Debagoiena. Emakume euskalduna lanerako gertu. Tel.: 606 50 25 67

Debagoiena. Emakumea gertu pertsonak zaintzen edo bestelako lanetan jarduteko. Sonia. 632 84 02 30

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. Eskarmentua daukat nagusiak eta umeak zaintzen. 673 78 08 99 edo 698 39 83 62

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. Jatetxean, garbitasunean, umeak zaintzen edota tailerlean lan eginez ditut. 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

Debagoiena. Eraikuntza lanak egingo nituzke. Bigarren mailako enkofratzaile edo peoi. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 632 83 49 90

Debagoiena. Esperientziadun emakumea sukaldaria lan egiteko gertu. 619 18 81 86

Debagoiena. Garbiketara lanak egiten ditut eta haurrak zaindu ere bai. 631 47 81 87

Debagoiena. Gizon arduratsua nagusi eta umeak zaintzeko gertu. Orduka edo egunez. Autoa daukat. 652 58 41 99

Debagoiena. Gizona gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan bizi izaten edo egunez edo orduka. Garbiketara edo peoi lanetan ere bai. Erabateko prestutasuna. 602 07 12 06

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

3. LOKALAK

- 301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

- 501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

- 601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
604. Bestelakoak

4. LANA

- 401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

2. GARAJEAK

- 201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

- 701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

- 801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdut
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

- 901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoiena. Neska arduratsua nagusi edo umeak zaintzeko eta garbiketara egiteko gertu. Orduka edo egunez. Interesa duenak dei dezala telefono zerbaki honetara: 645 01 05 84

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak zaindu edota atari, elkarte eta abarren garbiketara egiteko gertu. Baita etxeko lanak egiteko ere. Interesa duenak dei dezala telefono zerbaki honetara: 943 08 14 33

Debagoiena. Neska arduratsua, sukaldaritza eta geriatría oinarriko ikasketaduna, lanerako gertu. Nagusiak zaindu eta garbiketara egingo nituzke, etxean bertan bizi izanda, egun osoz edo orduka. Interesa duenak dei dezala telefono zerbaki honetara: 618 14 71 34

Debagoiena. Neska Boliviarra, esperientziaduna, garbitasunak egingo lituzke orduka. Baita nagusiak zaindu ere, asteburuetan. Interesa duenak dei dezala telefono zerbaki honetara: 618 14 71 34

Debagoiena. Neska espainiarra gertu nagusiak zaindu eta etxeak garbitzeko. Esperientziaduna. Interesa duenak dei dezala telefono zerbaki honetara: 633 84 65 30

Debagoiena. Neska gertu nagusi eta umeak zaitzeko edo garbiketara lanetan jarduteko. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Interesa duenak dei dezala telefono zerbaki honetara: 688 48 47 76

Debagoiena. Neska lanerako gertu: egun osoz, orduka edo etxean bertan bizi izaten. Interesa duenak dei dezala telefono zerbaki honetara: 619 18 81 86

Debagoiena. Neska prest gauean lan egiteko, ospitalean edo etxean. Geriatría laguntzaile tituloduna. Autoarekin. Interesa duenak dei dezala telefono zerbaki honetara: 600 00 51 60

Debagoiena. Orduka lan egingo nuke. Garbiketara, ume edo laguntza behar dutenak zaindu, ile-apaindegi laguntzaile edota dendarri jardundakoa naiz. Interesa duenak dei dezala telefono zerbaki honetara: 638 25 73 91 edo 943 79 80 05

Debagoiena. Pertsonen zaintzan lan egingo nuke orduka, etxean bertan bizi izaten edo egun osoz. Tabernak garbitzen ere arituko nintzateke. Interesa duenak dei dezala telefono honetara: 602 64 68 17

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke 8:00etatik 13:00etara, edo gauean. Gidabaimena eta lege-agiriak daukat. Interesa duenak dei dezala telefono zerbaki honetara: 697 68 89 20

Klinika laguntzailea. Esperientziadun klinika laguntzailea prest nagusiak, baita etxean eta bai ospitalean zaintzeko. Orduka edo gauez. Interesa duenak dei dezala telefono zerbaki honetara: 609 98 02 52

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Automatak. Siemens 1 automaten eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut, Bergaran edo inguruan. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 660 46 34 93 edo 943 76 15 76

Ingelesa Arrasaten. Hasiera mailako ingeles eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut. Prezio merkean, ahal bada. Interesatuok deitu telefono honetara: 695 73 87 95

Oñati. DBHko lagarren mailako neskatila bati matematika eta fisika eskola partikularrak emango dizkion norbait behar dut. Interesa duenak dei dezala telefono zerbaki honetara: 627 91 23 21

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Cockerra. Cockerra ematen da operari. Zazpi urte dauka. Txipa eta osasun agiriak dauka. 671 45 96 01

704. BESTELAKOAK

Arratoi txakur txikia galdua Arrasaten. Apirilaren 7an, arratsalde aldera Ekilore inguruan galdu zen. Marroi kolorekoa, bularrean ile zurirekin. Norbaitek ikusi ezkerona hona deitu: 943 79 86 35 edo 650 16 17 50

Txakurra galdu dut Lizargaraten (Oñati). Txakur bat galdu da Onatin, Lizargarate inguruan. Kanela kolorea, hanka zuria eta mutur zuria du. Norbaitek ikusi badu deitu hona: 646 39 87 31

8. DENETARIK

802. EROSI

Kutxa-izozkailua. Kutxa-izozkailua erosiko nuke. Interesa duenak dei dezala telefono zerbaki honetara: 656 75 76 98

Negurako lotarako zakua. Negurako bigarren eskuko lotarako zakua erosiko nuke. Interesa duenak dei dezala telefono zerbaki honetara: 628 51 22 78

Trangia erregailua. Alkoholarekin dabilen bigarren eskuko Trangia erregailu kita erosiko nuke. Interesa duenak dei dezala telefono zerbaki honetara: 660 43 64 29

803. EMAN

Lurra ematen da. 50 kamioiakada lur ematen dira. Inork gura izanez gero, zuloren bat bete zezake, deitu zerbaki honetara: 667 91 55 90

806. GALDU

Jaka eta telefonoa galdu Oñatin. Larunbat gauean, apirilaren 5ean, Onatiko taberna baten jaka beltza ahaztuta utzi edo lapurtu zidaten. Poltsikoan telefono mugikorra, Samsung galaxy SII neraman. Sikierra SIM txartela berreskuratzeari balezgo, eskertuko nuke. Angel. 666 95 79 85

Lepoko zintzilikarioa galdu dut. Harribitxi zurihandi bat eta 3 txikiakin gorri, berde eta txurirekin atondutako zilarrezko zintzilikarioa galdu nuen martxoaren 18an ospitale inguruan. Balio sentimental handia du. Aurkitu baduzu deitu zerbaki honetara mesedez. Mila esker. 660 82 61 81

808. BESTELAKOAK

Autokarabana errentan hartuko nuke San Juanetako aste-ko. Errentan emateko baduzu deitu telefono zerbaki honetara: 679 68 91 12

9. HARREMANAK

903. DEIAK

Bazkide bila. Bergarako Muriñonoko elkarte bazkide berri bila dabil. Bazkide berri egin nahi dena dei dezala telefono zerbaki honetara: 605 76 32 96

ETXEKO SUKALDERAINO

Javi Azpiazu | Aloña Mendiko futbol saileko presidentea

- Komertziala lanbidez, Javi Azpiazu futbolarengatik da ezagunen
- Bakarrik bizi da, baina etxetik irteterakoan ez da sekula bakarrik egoten

"Lanarengatik, egunero bidaiatzen dut, baina ni gustura Oñatin nago"

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Gaztetandik futboleant sartuta, Oñatin oso ezaguna eta maitatua —eta Oñatitik kanpo ere bai—, saltza guztietako perrexila dugu Javi Azpiazu. Sukaldean, batez ere arrainzalea dugu.

Zelakoa da Javi Azpiazu?

Pertsona arrunta eta saltseroa. Ze harreman daukazu sukaldearekin?

Sukaldari gisa, askotan etxetik kanpo egoten naiz eta ez daukat astirik nire jatorduak egiteko. Ohiko gauzak egiten ditut, defendatzen naiz sukaldean. Jatun oso ona naiz eta denetarik jaten dut.

Zein da zure espezialitatea?

Arraina gustatzen zait prestatzea: legatza saltan, bakailoa piperradan, txipiroiak... eta orain, garai honetan, antxoak era askotara: frijituak, arrautzaztatuta eta, denboraz banabil, papillote eran ere bai.

Zertara gonbidatuko zenuke lagun onena, eta non?

Menu batera. Otordu handirik ez, baina pixka bat berezia bai. Itxurako jatetxe batera gonbidatuko nuke; ez oso-oso abangoardiakoa, baizik eta tradizionala, euskal bazkariak egiten dituen: arraina, solomillotxo bat...

Gustura zeinekin jesarriko zinateke mahaiaren bueltan?

Aspaldian haserre nengokeen batekin, gauzak konpontzera. Mahai batek harremanak estutu egiten ditu.

Zelan sartu zinen futbol munduan?

Gazte denboran Donostian ikasten ibili nintzen. Hondartzan, ortozik, orkatila-babes batekin ibiltzen ginen futboleant eta hor

sartu zitzaidan harra. Futbola lagunekin batera jokatzen da, taldeka, ez bakarka, eta lagun asko egiten dira. Harreman asko egin ditut futbolari esker.

Bizi osoa Aloña Mendin daroazu. Uzteko gogo barik, ezta?

Oso gaixorik egon behar dut inoiz huts egiteko.

Zein miresten duzu futboleant?

Denetariko jendea: zuzendariak, jokalariek, entrenatzaileak... asko eta asko ezagutu ditut. Harreman oneko jendea, gurekin batera doana, filosofia eta portaera onarekin...

Eta futbolari ezagunen bat aipatzekotan?

Oñatiarrendako Reala izan zen oso talde ona, bi aldiz Ligako txapeliduna... Hortik bateren bat aipatzekotan, Santi Idigoras.

Futboleant ibiliko ez bazina, zertan ibiliko zinateke?

Beste kirolen batean; futbolaz aparte, pilota eta txirrindularitza ditut gustuko.

Mundu horretan ibiltzeko, zer da ezinbestekoa?

Tratu ona izatea jendearekin, zabala izatea, eta batzuetan pozarekin ibili eta beste batzuetan negararekin, mundu hau emozio handikoa da eta emozio guztiak onartu behar dira.



Javi Azpiazu, Azkoagain futbol zelaian. | GOIENA

"Arraina prestatzen dut gustura: legatza, bakailoa, txipiroiak..."**Iratxoek hiru desio betetzeko aukera ematen dizute.**

Osasuna, lehenengo; bizi izateko ez dadila ezer falta; eta gero, oso garrantzitsua, lagunak edukitzea eta haiekin jarraitzea.

Anekdotaren bat...

18 urte genituen eta lagun epaile batzuk nituen, eta Real Unioenen gazteen partidu bat ikuste-

ra joan nintzen; bada, polizia nazionalen furgonetan etorri ginen, zale batzuk gure bila etorri zirelako. Ni ez nintzen epailea, baina ni ere haiekin batera irten nintzen.

Zerk beldurtzen zaitu?

Bakardadeak. Bakarrik bizi naiz, baina etxeko bebarrutik irten eta segituan nago batekin, bestearekin... oso ezaguna naiz.

Nonbaitera joatekotan, nora?

Lanbidez komertziala naiz eta egunero irteten naiz bidaian, baina ni gustura Oñatin nago. Hemendik irtenez gero, kostaldera joatea gustatzen zait. Gipuzkoa bera mundiala da; Bizkaia ere bai.



AUKERAN...

Lehen platera: Menestra edo potajea.

Bigarrena: Edozein arrain.

Postrea: Mazedonia.

Edatekoa: Ardo beltza.

PATRIZIAREN GUTIZIA



Patrizia Vitelli

'CRINKLE' GAILETAK

Zimurra da *crinkle* berba ingelesaren esanahia. Hain zuzen, labatik pasa ostean gaileta horiei ateratzen zaizkien zimur-rengatik hartu dute izen hori.

Gainera, inoiz arrautza bat egin ez duen horrek egiteko modukoak dira txokolatzeko, ilun koloreko eta plazer betea eragiten duten gaileta horiek.

Pausatze denbora luzea

Hori bai, bada kontuan hartu beharreko baldintza bat: prestatzeak bere denbora eskatzen du. Hau da, ez dira pentsatu, egin eta jateko moduko gailetak; egin ostean, pausatzen utzi behar zaie, ordu luzez. Beraz, alde aurretik pentsatu behar da noiz gura diren gailetok gertu izan.

Eta kontuan hartu beharreko beste aholku bat da ez direla luzaroan labeant egiten utzi behar. Barrutik bigun utzi behar dira.



Crinkle gailetak, glass azukrearekin estalita, dotore aurkezteko. | THE COOKROCKER

Fitxa

- Denbora: 20 minutu + hiru orduko pausatzea.
- Zailtasuna: ★★★★★

OSAGAIK

- 250 gramo fondant txokolate.
- 60 gramo gurin.
- 100 gramo azukre.
- 2 arrautza.
- Postreak egiteko 200 gramo irin.
- Banilla esentzia edo banilla zaporedun koilarakada bat azukre.
- Koilarakadaxo bat hauts legamia.
- Glass azukrea.

Prestaketa

1. Txokolatea gurinarekin batera urtu egingo dugu Maria bainuan edo mikro-uhin labeant. Eta gero, epeldu arte utzi egin behar da pausatzen.
2. Katilu batean, arrautzak irabiatu egingo ditugu, azukrearekin eta banillarekin, eta ondo nahastuta daudenean, txokolate eta gurin kremarekin nahastuko ditugu.
3. Nahasketari irina botako diogu, legamia gehitu eta berriro ere guztia nahastu egingo dugu. Gero, katilua film paperarekin estali eta hozkailuan gordeko dugu, gutxienez, hiru orduz, masa gogortu arte. Hotza dagoenean, bolatxoak egingo ditugu.
4. Bolatxoak glass azukrearekin estali eta alde aurretik berotutako labeant sartuko ditugu, 180 graduan, 12-14 minutuan.

Cortana da Microsoften laguntzaile birtual berria

Siri eta Google Now-k baino ahalmen handiagoarekin

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Windows Phone sistema eragilea darabilten gailuentzako laguntzaile birtualak Cortana izango du izena, Halo bideojokoarena bera, hain zuzen. Windows Phone 8.1arekin batera aurkeztu du Microsoftek Google Now eta Siri-ren lehia berria, baina, horren kasuan, hizkera naturalarekin erabil daiteke eta hirugarrenen aplikazioekin ere badabil, sisteman erabat integratuta. Emandako aurrerapenei begiratuz gero, itxura denez, gisa honetako sistemarik inteligentena da Microsoftena. Cortanak, gainera, erabiltzaileak berak gailuan gordeta duen informazioa erabiliko du, emaitza ahalik eta pertsonalizatuena emateko asmoz, eta ez du soilik informazioa analizatu eta kuantifikatzeko lainora jotzen Google Now eta Siri-n bezala.

Bing erdigunean

BUILD 2014 ekitaldian eginiko aurkezpenetan hizkera naturalaren ulermen maila handia ipini da agerian. Ahots bidezko bilatzailearekin batera testu bidez ere bilaketak egiteko aukera gehitu dute, bigarren bilatzen baten beharra kenduta eta Cortanaren ahalmenaz baliatuko litzatekeena. Bilaketetarako motor nagusiei dagokienez, noski, Cortanak Bing darabil erreferentzia



nagusi bezala eta bilaketa zehatzagoetarako Yelp edo Wikipe-diara joko du.

Aplikazioekin bateragarri

Zeresen handiena, ostera, Cortanak bestelako aplikazioekin

komunikatzeko duen gaitasunak piztu du, agindu zehatzekin. Hala, Cortanan agindua emanda, Skype bitartez ere egin ahal izango litzateke deia. Hasiara baten, Ameriketako Estatu Batuetan soilik ipiniko dute erabilgarri.

Segurtasun arrakalaren arazoak bere horretan segi lezake oraindik

J.B. | ARRASATE

Azken urteetako segurtasun arrakalarik larrienak hein handi baten konpontzeke segitzen du, ze zuloak kalteturiko 500.000 30.000 soilik jaulki baitira atzera ere, eta, ondorioz, milaka zerbitzu, webgune eta sistema arriskuan leudeke oraindik, ziurtagiri eguneratua berriz jaulki ezean. Netcraft ikerketa etxeak eginiko lanak eman ditu aditzera datuok, eta segurtasun hutsunearen zati handi batek bere horretan eusten diola frogatu gura izan dute. Hori gutxi balitz, kalteturiko ziurtagiri asko berritu ez eta ezta ezabatu ere ez dituzte egin jatorrizko

webguneek, balizko eraso gehiagori ateak zabalik utzita; ziurtagiri kaltetuak ezabatu ezean, alferrik da-eta OpenSSL delakoaren bertsio berria ezartzea, sarbide zaharrak pasahitzak jasotzeko berdin-berdin balioko lukeelako. Webgunerik ezagunenek berritu dituzte ziurtagiriak, baina, hala eta guztiz ere, arrakalak zabalik edo pitzadura berrietarako aukerak hor jarraitzen du, erremedio barik. Administrazioarekin gainera, nabigatzaileek ere kudeatu behar dute arazoa eta erabiltzailearen beraren eguneraketaren pean ere geratzen da neurria, azken muturrean.

Sarea da '.eus' domeinu izendapena duen lehen webgunea

J.B. | ARRASATE

PuntuEus fundazioak aireratu du lehen webgunea .eus domeinuarekin erregistratuta: *Domeinuak.eus*. Duela ia urtebete ICANN erakundeak domeinua baimendu eta gero, laster irekiko da domeinu horrekin guneak erregistratzeko epea.

lotutako guneentzako domeinu izendapena izango da .eus eta PuntuEus fundazioaren bitartez bideratu beharko dira erregistro berriak. Erreserbarako epea noiz zabalduko den ez dute oraindik jakinarazi Fundazioek, eta baldintza bakarra euskarazko edukiren bat edo, osterantzean, euskal kulturarekin lotutako webgunea beharko du izan.

Euskara eta euskal kultura

Iaz ekainean onartu zuen ICANN domeinuen erregulaziorako erakundeak .eus domeinu izendapena baimendutakoen zerrendan sartzea. Hala, euskarazko eta euskal kulturari

Iragartzeko dute oraindik noiz hasiko den domeinuak erreserbatzeko epea eta prozesua nola bideratuko duten Fundaziotik.

Mugikorrek egiteari uztea aztertzen dabil BlackBerry

Negozioarekin etekinik atera ezinean, estrategia korporatiboetan jarriko dute indarra aurrerantzean

J.B. | ARRASATE

Blackberry mugikorren alorrean amore ematear dagoela ematen du. Konpainiaren CEOak iragarri du sakelakoak fabrikatzeari utziko diotela negozioak etekinik emateke jarraitzen badu. 10 milioi mugikorren salmentan ipini dute bideragarritasun muga, eta horren arabera hartuko dute erabakia. Era berean, John Chen CEOak azaldu du BlackBerry aurrerantzean estrategia korporatiboetan ibiliko dela lanean, batik bat. Inbertsioak aztertu eta bestelako konpainiekin proiektuak partekatzea da bilatzen dutena, osasun arloko proiektuetan eta finantza eta legearen munduko egitasmoei arreta berezia eskaini. Izan ere, arlo horietan berebizikoa da segurtasuna

eta horretan zerbitzu espezializatuak eskaini gura dituzte Blackberritik.

Amorerik ez

Chenek, hala eta guztiz ere, amore ematek urrun daudela nabarmendu gura izan du hedabideetara zabalduko ohar baten bidez. Negozioa aurki salduko duten zurrumurrua errotik gezurtatu eta bere adierazpenak testuingurutik atera zirela azaldu du. Negozioa uzteko "inolako asmorik ez" dutela adierazi du CEOak eta une honetan errentagarritasun modua bilatzea dela lehen-tasun behinena. Datuentzako segurtasun blindatze askoz ere hertsia gotez gain, nazioarteko datu-plan merkeak dira oraindik Blackberriren indargunea.

Twitterreko kontuen %44k ez dute inoiz txio bat bera ere egin

Twochars-ek ateratako ikerketa baten arabera, Twitterreko 100 kontutik 44k inoiz ere ez dute ezer argitaratu. Askok jarraitzaile soil izanda, Twitterrek diseinua aldatu berri dio webguneko bertsioari, eta Facebooken antz handiagoa eman dio, kontuak jarraitu eta edukia hartzeko erraztasunak emateko.

Ekain hasieran egingo du Applek WWDC konferentzia aurtengo

WWDC konferentziaren data jakinarazi berri dituzte Applekoek. Garatzaileentzako aurtengo jardunaldiak ekainaren 2tik 6ra egingo dituzte, San Frantziskon. Aurtengo jardunaldietan, Appleren bi sistema eragileak izango dira ardatza: iOS eta OS X, hain justu ere.



BODY DRYER

Etorkizuneko gorputz-lehorgailua

Body Dryer gorputz-lehorgailua sortu eta ekoizpenari ekiteko diru bila dabil Ameriketako Estatu Batuetako enpresa bat. Toallarik erabili barik eta 30 segundotan gorputza lehor dezakeela diote egileek, eta gorputz osoa sikatzeko modu askoz higienikoagoa dela, toaletako bakteriarik gabe. 180 eurotan saldu gura dute merkaturatzean.

TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO



'Reality'-en gainbehera?

Egia izango da? Azkenaldian horren modan jarri ziren *reality*-ek audientzia kontuetan atzerakada nabarmena izan dute. Telecinco duela hilabete batzuk abiarazi zuen *Operación bikini* hark ez zuen apenas oihartzunik izan, eta *Supervivientes*-ekin ere ez dago oso gustura ene Vasiletxo. Saioak pare bat milioi pertsona harrapatu dituen arren, Amador Mohedanok soilik aste bakoitzeko jasotzen dituen 30.000 euroak ordaintzeko ez omen da nahikoa.

TVEk ere *Mira Quien Baila* berpiztu du, eta zenbait dantzariaren *topless*-arekin audientzia igo nahi izan arren, ez du helburua lortu.

Beste on bizitza kuxkuxeatzeaz aspertu gara? Edo orain gure arazoei arreta gehiago jartzen diegu? Ez dakit zer esan. Hala ere, udako oportunitatik bueltan Mediasetek Mercedes Mila kajoitik atera, eta *reality*-en ama den *Gran Hermano* estreinatuko du.

Bien bitartean, ETB2ren *La noche de...*-k 1.000 programa egin ditu, bigarren mailako famosillo-kasposillo horien bizipenen beharrik gabe. Dena den, saio honetan ere, filmak baino gehiago, zati kuxkuxeroak batzen ditu ikusle gehien. Ez gara inoiz aldatuko!

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 28



'Erakusleho'

Aretxabaletako M5 denda ezagutuko dugu. Batez ere, mendiko zapatilak saltzen dituzte bertan. | 20:00

12:00 Debagoiena zuzenean

13:00 Ibilean

13:30 Debagoiena zuzenean

14:30 Berriak

15:00 TERTULIA

16:30 Berriak

17:00 Kantari

17:30 Kontzertua

18:00 Kontzertua

18:25 Zorion Agurrak

18:30 Berriak

19:00 Amaia DJ

19:30 Harmailatik

20:00 Debagoiena zuzenean

20:30 Berriak

21:00 Debagoiena zuzenean

21:30 Berriak

22:00 Harmailatik

22:30 Debagoiena zuzenean

23:00 Berriak

23:30 Gurean gaur

23:50 Debagoiena zuzenean

00:20 Harmailatik

MARTITZENA, 29



'Auzorik auzo'

Aretxabaletako Aoza-ratza auzoa ezagutuko dugu, Urkulu inguruan dagoen auzoa, hain zuzen. | 20:00

12:00 Ikusi irratia

12:50 Tripa-zorri

13:25 Amaia DJ

14:00 Debagoiena zuzenean

14:30 Berriak

15:00 Harmailatik

15:30 Onein

15:55 Zorion Agurrak

16:00 Debagoiena zuzenean

16:30 Berriak

17:00 Ibilean

17:30 Kontzertua

18:00 Ikusmira

18:25 Zorion Agurrak

18:30 Berriak

19:00 Kontzertua

20:00 Debagoiena zuzenean

20:30 Berriak

21:00 Debagoiena zuzenean

21:30 Berriak

22:00 Amaia DJ

22:30 Debagoiena zuzenean

23:00 Berriak

23:30 Gurean gaur

23:50 Tertulia

EGUAZTENA, 30



'Berriak'

Eguneko albiste esanguratsuenak jasoko ditugu Monika Belastegi aurkezlearen gidaritzapean. | 14:30

12:00 Tripa-zorri

12:30 Klaketa

13:15 Ikusmira

13:30 Kantari

14:00 Debagoiena zuzenean

14:30 Berriak

15:00 Ikusi irratia

15:45 Ikusmira

16:00 Debagoiena zuzenean

16:30 Berriak

17:00 Kantari

17:30 Kontzertua

18:00 Kontzertua

18:30 Berriak

19:00 Ibilean

19:30 Harmailatik

20:00 Debagoiena zuzenean

20:30 Berriak

21:00 Debagoiena zuzenean

21:30 Berriak

22:00 Kontzertua

22:30 Debagoiena zuzenean

23:00 Berriak

23:30 Gurean gaur

23:50 Debagoiena zuzenean

00:20 Kontzertua

EGUENA, 1



'Amaia DJ'

Gaztetxoek eskatutako kantuen bideoklipak erakutsiko ditugu Amaia Txintxurretaren musika saioan. | 19:30

10:00 Kantari

11:00 Debagoiena zuzenean

12:00 Amaia DJ

12:30 Zorion Agurrak

12:35 Onein

13:00 Bertso saioa

13:30 Tertulia

15:05 Debagoiena zuzenean

16:00 Bertso saioa

16:30 Kontzertua

17:05 Ibilean

18:05 Kontzertua

18:35 Zorion Agurrak

18:40 Debagoiena zuzenean

19:30 Amaia DJ

20:00 Kontzertua

20:30 Bertso saioa

21:00 Debagoiena zuzenean

22:00 Amaia DJ

22:30 Tertulia

23:30 Kontzertua

00:00 Kontzertua

00:30 Debagoiena zuzenean

EGUBAKOITZA, 2



Kontzertua

Durangoko Ahotsean Eñaut Elorrietak emandako kontzertua ikusi ahal izango dugu egubakoitzean. | 18:05

10:00 Kantari

11:00 Zorion Agurrak

11:05 Tertulia

12:10 Sagarrondotik

13:00 Debagoiena zuzenean

14:00 Zorion Agurrak

14:05 Tertulia

15:35 Kantari

16:40 Kontzertua

17:05 Debagoiena zuzenean

18:05 Kontzertua

18:35 Tripa-zorri

19:00 Ibilean

19:30 Kontzertua

20:00 Amaia DJ

20:30 Zorion Agurrak

20:35 Debagoiena zuzenean

21:30 Ikusi irratia

22:05 Tertulia

23:05 Kontzertua

23:30 Debagoiena zuzenean

ARRASATE IRRATIA

Ohiko programazioa izango dugu gaurtik eguaztenera bitartean

Pazko Astearen ostean, gaur, astelehena, itzuliko gara ohiko programazioarekin 107.7an. 10:00etan *Igo autobusera!* irratia izango dugu, beraz, astelehenetik eguaztenera bitartean. Eguenean eta egubakoitzean musika izango dugu irratian –Langileen Nazioarteko Eguna dela eta.

'Devinire' izeneko ikuskizunerako sarrerak zozketan

Maiatzaren 3an, zapatuan, eskainiko dute *Devinire* ikuskizuna Arrasateko Amaia antzokian. Bertara joan nahi duzuenok, sarrerak lortzeko deitu 943 25 05 telefonora edo idatzi irratia@goiena.com helbidera eta hartu parte zozketan. Animatu, eta ea zeu zaren sarreren irabazlea!

Gazte Bulegoko informazioa jasoko dugu martitzenean

Bihar, martitzena, Arrasate Irratiko *Igo autobusera!* irratia izango dugu herriko Gazte Bulegoan. Dorleta Kortazarrek gazte informazioaren nondik norakoak kontatuko dizkigu, 11:00 inguruan. Informazio baliagarria emango digu Kortazarrek; horrenbestez, ez ezazue hutsik egin.

TELE-ALBISTEAK

'Zazpi akorde' izeneko musika saioa estreinatuko dugu maiatzean telebistan

Huheziren Ikus-entzunezko laugarren mailako ikasleek ekoiztutako saioa da

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Musika saio berri baten zortzi atal ekoiztu dituzte Huzezi Fakultatearen laugarren mailako ikasleek taldeka.

Zazpi akorde izena dauka saioak; saio bakoitza talde batek ekoiztutakoa da, ordu erdiko iraupena izango du eta maiatzean aurrera emitituko dira Goiena telebistaren bitartez.

Bi musika talde edo bakarlari

Saio bakoitzean bi musika talde edo bakarlari izango dira: bata, ezagun samarra, eta bestea, hasi berria edo ezezagunagoa. Platoan eta entsegu tokian egingo dira elkarrizketak eta erreportajeak, eta zuzeneko akustiko batekin edo bideoklip batekin amaituko da saioa.



Janire Zubizarreta aurkezlea Eneko Mobydick artistarekin, platoan. | GOIENA

Esaterako, saio batean, rock, folk eta country musika estiloak lantzen dituzten Eneko Mobydick eta Mary May izango dira prota-

gonistak. Janire Zubizarreta izango da aurkezle lanetan eta bi artistak gertutik ezagutzeko aukera izango dugu *Zazpi akorde*-n.


Aloñako Igoeraren antolatzaileak izango ditugu 'Harmailatik'-en

Egun bakarra beharrean, maiatzaren 2tik 4rako asteburua hartuko du aurten Aloñako Igoerak

A.T. | ARRASATE

Aloñako Igoera beritasun ugariarekin dator aurten, eta horien guztien gainean berba egingo dugu goerako antolatzaileekin gaur, astelehena, *Harmailatik* kirol saioan, 19:30ean, 22:00etan eta 00:20an.

Ohiko lasterketaz gain –eta hori ere ez da urterokoa izango–, beste hainbat ekintza antolatuta nahi izan dute hamargarren edizioa modu berezian ospatu. Lasterketa bertikala egingo da egubakoitzean, egubakoitz gauean. Arantzazu azpiko Bellozako zubian hasi eta Buetraitzeko tontorrera, 2,7 kilometroan 720 metro igoko dituzte. 21:30ean hasiko da lasterketa, eta frontalarekin joan beharko dute maldan gora.



lazko igoera. | GOIENA

Domeka izango da mendi lasterketaren eguna –ohiko formatukoarena, nahiz eta ibilbide desberdinarekin–. 09:00etan hasita, 22,6 kilometroko ibilbidea egin beharko dute parte-hartzaileak.

ZORION AGURRAK



BERGARA
Endika Ibaibarriaga Bengoa
Maiatzaren 2an, 10 urte.
Zorionak txapeldun zure
10. urtebetetzean. Segi
horrelakoa izaten, zeren
ingurukoak txora txora
eginik dituzu. Etxekoak.



OÑATI
Aiora Aranzadi Umerez
Maiatzaren 1ean, 3 urte.
Zorionak, printzesa!
Muxu handi bat eta
besarkada bat etxekoan
eta, batez ere, Anerren
partetik. Ondo pasatu
zure urtebetetze eguna.



OÑATI
Ion Arabalaza
Maiatzaren 1ean, 26
urte. Zorionak etxeko
denon partetik eta ondo
pasatu zure urtebetetze
egunean.



ARRASATE
June Dominguez Garai
Apirilaren 30ean, 4 urte.
Zorionak, gure printzesa!
Ondo pasatu zure
urtebetetze egunean.
Milaka patxo etxekoan
partetik.



BERGARA
Unax Maeztu Elkoroberezibar
Apirilaren 30ean, 5 urte.
Zorionak familiakoan
partez. Oso oso ondo
pasatu eguna. Bereziki
amatxo, aitatxo eta
Aratzen partez. Muxu
potolo bat!




ESKORRIATZA
Pablo Berezibar Arevalo
Apirilaren 29an, 12 urte.
Zorionak, txapeldun! Ondo
pasatu zure egunean.
Oporretan zaude baina
bueltan ospatuko dugu!
Patxo handi bat eta jarraitu
horrela!



BERGARA
Zaraitzu Lazkano Gorostiza
Apirilaren 28an, 5 urte.
Zorionak, sorgintxo!
Ondo-ondo pasatu zeure
eguna. Patxo handi bat
familiako danon eta,
bereziki, Alluitzen
partetik.



ARRASATE
Izortz Llodio Ramos
Apirilaren 25ean, 6 urte.
Zorionak, Txirri!
Ondo-ondo pasatu zure
urtebetetze egunean.
Patxito handi-handi bat
etxekoan partetik.



OÑATI
Xabi Jausoro
Apirilaren 25ean, 4 urte.
Zorionak, Xabi! Ondo
pasatu zure eguna eta
patxo handi-handi bat!



ARETXABALETA
Aimar Akizu eta Begoña Uribetxebarria
Apirilaren 25ean, 2 urte. Aimarrek Apirilaren 25ean 2
urte eta amama Begoñak Apirilaren 27an 66 urte.
Zorionak bioi etxeko guztion partetik eta egun
zoragarria pasa!!!



BERGARA
Ekain Rodriguez Diaz de Zerio
Apirilaren 24an, 4 urte. Zorionak, Ekain! Ondo pasatu
zure urtebetetze egunean eta patxo bat etxeko danon
eta, batez ere, lbairen partetik.



BERGARA
Mikel Igartza Amasorrain
Apirilaren 24an, 8 urte.
Zorionak, mutil handi.
Segi orain arte bezalako
jatorra izaten. Patxo
ugarri etxeko guztien
partetik.



OÑATI
Eneritz Gereñu
Apirilaren 24an, 6 urte.
Zorionak, printzesa!!
Ondo pasatu zure eguna
eta merienda goxo bat
prestatu guztiontzat!
Muxu handi bat
familixa danan partetik!



BERGARA
Aiora Unamuno
Apirilaren 23an,
urtebete.



ARETXABALETA
Aimar Azpitarte
Apirilaren 23an, 6 urte.
Zorionak, txapeldun!
Gure etxeko futbolistak
6 gol sartu ditu gaur.
Muxu handi bat etxeko
denon partez eta patxo
goxo bat Anerrek. Ondo
pasau.



OÑATI
Ane Isasisasmendi Egaña
Apirilaren 22an, 7 urte.
Zorionak eta pa handi bat
futbolista onenantzat,
familixa danaren
partetik.



BERGARA
Antxon eta Oihan
Apirilaren 22an, 10 urte. Zorionak bikote!!
Segi gogor hamargarren urtebetetzean.
Besarkada eta patxo mordua etxekoangandik.



OÑATI
Uxuri Olalde Suarez
Apirilaren 21ean, 2 urte.
Zorionak, potxoli!
Ondo-ondo pasatu eguna,
Ekainen, amatxoren,
aitaxoren eta familiako
gainerakoan partetik!
Muxu erraldoi bat,
prexioxa!



OÑATI
Josu, Jokin eta Ander
Apirilaren 21ean, urtebetetzea. Josuk eta Jokinak
apirilaren 21ean, 16 urte eta Anderrek 22an, 16 urte.
Zorionak, *guapiximos!* Ondo-ondo pasatu zuen
urtebetetze egunetan! Muxu eta besarkada handi bat
etxeko danen partetik!



OÑATI
Iraia Arregi Orueta
Apirilaren 21ean, 6 urte.
Zorionak potxoli!!
Ondo pasau zure
urtebetetzea!!
Muxu handi bat etxeko
denon partez, bereziki
Aiantze eta Anen partez.
Mua.




ARETXABALETA
Martxel Lasagabaster
Apirilaren 20an, 6 urte.
Zorionak Martxel! Ondo
ondo pasau zure egunien
eta patxo handi bat
etxeko danon partez.



ARRASATE
M^a Pilar Bruña Del Arco
Apirilaren 19an,
Urtebetetzea. Zorionak
amama!!! Ondo pasau
zure eguna eta bazkari
eder batekin ospatuko
dugu. Mila muxu Ekaitz
eta Iratin partetik.



ESKORRIATZA
Itziar Bengoa Muxika
Apirilaren 16an, 7 urte.
Alaaa!! Zazpi urte jada!
Zelan pasetan dan
denborie, ezta? Ondo
zelebratu eta hobeto
pasatu zure egunien.
Patxo bana etxeko danon
partetik.



ARRASATE
Aisha Luengo Elgoro
Apirilaren 15ean, 5 urte.
Zorionak eta muxu
handi-handi bat etxeko
guztien partetik, bereziki
Lukenena, Ederrena eta
Kairena.



OÑATI
Oier Laka Sansinenea
Apirilaren 14an, 4 urte.
Zorionak, Oier! Ondo
pasatu zure egunian eta
patxo handi bat familia
danaren partetik!



ARRASATE
Oier Armendia Zallo
Apirilaren 14an, 7 urte.
Zorionak, Oier! Etxeko
guztien partetik muxu
handi bat eta ondo-ondo
pasatu zure zazpigarren
urtebetetzean,
txapeldun!



ARRASATE
Maialen Velez de Mendizabal Otero
Apirilaren 13an, 6 urte.
Zorionak, printzesa!
Ondo-ondo pasatu zure
urtegunen familia eta
laguntxoekin! Patxo eta
besarkada potolo bat
etxeko guztion partetik!



ARAMAIO
Amaiur Arana Ajuriagerra
Apirilaren 12an, 10 urte. Zorionak, Amaiur! Dagoeneko
10 urte! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu handi bat
etxeko danon partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali *zorionagurra@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkartzen batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte
jasotako zorion agurra bakarrik
iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo
asteen argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK

**Hodei Ibarra Sasiain**

Bergara 3,220 Kilo. Apirilaren 23a. Gurasoak: Saioa eta Iker. Argazkian, sehaskan lo.

**Eneko Urrestarazu Irazabal**

Oñati 3,500 Kilo. Apirilaren 23a. Gurasoak: Aintzane eta Vicente. Argazkian, umea amarekin.

**Oier Blanco Gaztelu**

Antzuola 3,400 Kilo. Apirilaren 14a. Gurasoak: Aitziber eta Jose. Argazkian, Oier, birramona Benitarekin.

**Zuhaitz Larrañaga Fernandez**

Bergara 4,030 Kilo. Apirilaren 22a. Gurasoak: Maite eta Mikel. Argazkian, Zuhaitz, sehaskan lo.

**Izar Guenetxea Irizar**

Oñati 2,820 Kilo. Apirilaren 15a. Gurasoak: Ainhoa eta Andoni. Argazkian, Izar txikia sehaskan lo.

**Ilargi Rey Echeverria**

Arrasate 3,420 Kilo. Apirilaren 14a. Gurasoak: Itxaso eta Luis. Argazkian, Ilargi, gurasoekin batera.

**Yoel Torga de la Fuente**

Arrasate 3,250 Kilo. Apirilaren 15a. Gurasoak: Monica eta Jose Felix. Argazkian, Yoel txikia gurasoekin.

**Magali Igartua Ugarte**

Oñati 3,860 Kilo. Apirilaren 14a. Gurasoak: Maite eta Iñaki. Argazkian, Magali jaioberria gurasoekin.

**Eider Mateos Tena**

Arrasate 3,360 Kilo. Apirilaren 12a. Gurasoak: Julia eta Koldo. Argazkian, Eider eta ahizpa Julene.

**Eider Flores Manchon**

Elorrio 3,700 Kilo. Apirilaren 12a. Gurasoak: Veronica eta Jon. Argazkian, Eider jaioberria aitarekin.

**Beñat Badiola Sagasta**

Arrasate 3,460 Kilo. Apirilaren 11. Gurasoak: Sonia eta Jon. Argazkian, Beñat jaioberria sehaskan.

**Lander Bañares de la Torre**

Eskoriatza 3,580 Kilo. Apirilaren 11. Gurasoak: Mireia eta David. Argazkian, Lander txikia amarekin.

Guraso berriei EROSKI hipermerkatuaren partetik,

zorionak!

Eroskik zuen lehen beharretarako,
OPARIA*
egingo dizue Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.



Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI
zurekin

* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat

**Jaio da!**

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batara.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

Goizak patxadaz hartu ohi dituztenendako

Xigorgailu horrekin, guztia jan aurretik jolasteko aukera ere izango dute gosaltzeko ogi xigortua jan ohi dutenek.
www.nopuedocreer.com




12

KILO

Horixe pisatzen du bederlatzi urtez bahituta egon den 15 urteko neska argentinar batek. Garaje baten aurkitu dute: txakur batekin eta

tximu batekin bizi izan da, eta azken horrek utzitako hondarrak jan ditu neskak.
www.elpais.es



Max. 16°

Min. 10°

Egunaren lehenengo partean izango da euria ugariagoa eta sarriagoa.
euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2014-04-28

HAMARREKOA

Juanito Oartzabal Aurten ere 'El Conquistador del Fin del Mundo'-n ikusi dugun Gasteizko mendigoizalea Marokon dago, 'Titan Desert by Garmin' izeneko proba gogorrean parte hartzen | TXOMIN MADINA

"Egiten dudana gozatzeko ez dudanean egongo naiz geldi"

1. El Conquistador-en hamar edizioetatik zazpitan egon zara. Zein izan da gogorrena?

Akaso, azken hau. Uste genuen berriro Patagoniara gindoazela, eta ezustean hartu gintuen. Ez geunden hango baldintzetarako prestatuta; eltxoena gogorra izan da.

2. Eta zerk motibatzen zaitu joaten jarraitzeko?

Abenturak. Une gogorak bizitzen dituzula alde batera utzita, abentura bera gustatu egin behar zaizu, geneetan eroan. Himalaiako nire kirol jarduerekin alderatzen dut.

3. Antolakuntzakoak hain gaiztoak dira?

Denok legez, antolakuntzak bere papera egin behar du. Inoiz ez dugu esaten tranparik dagoenik. Dena erreal da: probak gogorak dira, asko egoten da jokoan; baina gure iritziz, nahi duten taldearen aldekoak diren maniobrak badaude.

4. Jose Luis Kortarekin duzun kimika hasieratik da halakoa ala hazten joan da?

Betidanik da harreman bikaina: beti egon da, dago, eta egongo da. Kapitain moduan batera gindoazen bigarren aldia izan da, eta oso ondo konpondu gara, oso ondo ulertu dugu elkar.

5. Telebistan zure haserrealdi bat ikustean, zer pentsatzen duzu?

Askotan, egin eta esaten ditudanekin lotsatu egiten naiz. Baina kontua da dena ondo joatea eta audientzia izatea.



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Ingurumenarekin lotutako gauza asko aldatuko nituzke, berotze globala eta halako gauzak ikusten ari gara eta"

6. Saioa lehia da; mendigoizale-tasuna, teoriarik ez. Ala bai?

Ez; horregatik, *El Conquistador*-en nagoenean lehiakortasunari buruz berba egiten dut. Nire kirol jardueran ez nago lehiatzera ohituta, eta saioa lehia da zentzu guztietan.

7. 26 aldiz igo zara 8.000 metroko mendietara, inor baino gehiago. Zein gogoratzen duzu bereziki?

Lehena, 1985ean igo nuen Cho Oyu. Orduko sentsazioak ez ditut berri izan. Zortzimilako bat igotzearen magia berria zen niretzat, eta lehena izateak, sentsazio onenak izan ditudan mendi bihurtu du.

8. Nola doa zortzimilako guztiak berri ere igotzeko proiektua?

Presa gabe: lau geratzen zaizkit. Ez dago baztertuta, baina bai *stand-by*-ean. Aurten bat egiteko asmoa nuen, ikusiko dugu. Zerbait pertsonala da; kontua da lehenengoz igotako bide beretik ez igotzen saiatzea.

9. Titan Desert-en ere apuntatu zara: desertuan egiten den mendiko bizikleta lasterketan.

Diote munduko BTT lasterketa gogorrena dela. Ez dakit hala den, baina ziur nago gorriak ikusiko ditudala, ez naiz-eta entrenatu. Amaitzea da helburua.

10. Noiz egongo da geldi Juanito Oartzabal?

Egiten dudana gozatzeko ez dudanean. Egia da adin bat dudala, baina lanak ematen eta gozatzeko jarraitzeko asmoarekin nago.

BIHARAMUNA

IXIDOR SOLUPE



Euskal abertzaleak?

Apirilaren 20a, Aberri eguna. Arrasateko kaleetan zehar ez da nabaritu egun berezi honen ospakizunik. Herritar gutxi, balkoi eta leihoetan zintzilik ikurrin banaka batzuk; urteko igande arrunta zirudien. Neure buruari galdetzen nion non ote zeuden Arrasateko euskal abertzaleak egun berezi honetan? Litekeena da ahozko abertzale interesatu gehiegitxo egotea, eta eginaz eta ez hitzez euren sentimendua kale-ratzen dutenak, geroz eta gutxiago izatea.... alde/rdi guztietan gainera.

Sarri entzun ohi dugu herri-tarrak politikarengandik alden-du direla/garela, ustelkeria medio. Baina norbanakoaren ongizate erreinuaz haratago konpromisoa eskatzen duen guztiaz ez ote gabiltzan aldentzen galdetzen diot ere neure buruari, Aberriaren egunean hain parte hartze eskasa ikusita.

Urteak dira, Xabier Arzalluzi mitin baten honakoa entzun niola: "Kapitalak ez dauka aberririk; askorentzako, kapitala aberria da". Hau bai egia, handia gainera, ageri agerian geratzen dena oporraldiak datozenean.

"Borrokatzen da nazio askapenaren alde eta borrokatzen da gizarte askapenaren alde. Ona hemen batuta euskal gaztediaren aldarria". (J.A. Agirre lehendakaria).



Debagoiena zuzenean

Gertuko kontuak, bertatik bertara

Txomin Madinak gidatuta eta aurkeztuta

► Egunero, 20:00, 21:00, 22:30 eta 23:50



Bertakoa eta sasoiak
Telebistako programazio berria

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena